

PRIMER CONCURSO LITERARIO " RESURRECCION MARIA DE AZKUE"
=====

"Un premio para
una narración
en Vascuence"

Instituido por la

CAJAS DE AHORROS MUNICIPALES
=====
DE BILBAO
=====

TITULO DE LA NOVELA CORTA: "LEN, ORAIN ETA GERD".

Lema o pseudónimo del escritor: MIKELA.
=====

L E N ,
=====

O R A I N
=====

E T A
=====

G E R O
=====

MIKELA'K idatzia

LABURPENA, IRUDI-BIDEZ
=====

ETXEA
SENDIA

ALBERTO
ABADEA

SABIN
ETA AMAIA
(BASERRIA)

BATXI
TA
MIKELA

ALKATE


ESPETXEAN

KEPA
TA
ZURIÑE
(ABESLARIAK)

KOLDO
TA
GARBIÑE
(EKINTZAILLEAK)

SENDI BARRIA
(Geroari begira)

Geroago...



A U R K I - B I D E A
=====

LABURPENA, irudi-bidez.....	3
I.-GERDARI BEGIRA.....	5
Landabarri ta ingurua.....	6
Antxe bizi gara.....	7
Maite-miña.....	7
Ezkontzea.....	13
Batxi, alkate.....	15
Batxi espetxean.....	18
II.-ALBERTO ABADEA.....	22
Abade-gai.....	23
Abade ta Errira.....	27
Lekaimeak.....	30
Eskolea.....	31
Eleizea.....	33
Ekintzailleak.....	38
III.-SABIN ETA AMAIA BASERRIAN.....	41
Artajorran eta berbetan.....	42
Bide barriak.....	44
Batxi'ren eriotzea.....	45
Baserri-arazoa.....	46
Alkartzea.....	49
Esne-arazoa.....	51
IV.-KOLDO TA GARBIÑE EKINTZAILLEAK.....	58
Alkar ulertu eziña.....	59
Aldakuntzea ta batasuna.....	61
Eginbide bat.....	62
Koldo'ren eritxiak.....	64
Gogorkeriak.....	66
Erroma'n.....	68
V.-KEPA TA ZURIÑE, ERES-ZALEAK.....	74
Zuriñe, eres-zalea.....	75
Eleizan eta ikastolan.....	75
Maite-min ardurabakoa.....	76
Amaron onuak.....	78
Bide onean.....	82
Onenak.....	88
VI.-GEROAGO.....	90
Parkapen nagusia.....	91
Errege barriaren beraldia.....	95
Errian eztabaidea.....	95
Mikela'ren gaiso-aldia.....	96
Martzeliña'ren ikustaldia.....	96
Azken-aurrea.....	97

I

GERDARI BEGIRA
=====

LANDABARRI TA INGURUA.

Landabbarri zan gure baserria. Euskalerrian diran ainbeste baserriren antz-antzekoa: teillatu gorria, garautegi utsa, ~~ta~~ ormaz esitu-bakoa eta alde guztietatik aize garbia ugari artzen ebana.

Beragoko maillan lo-gela batzuk eta erdi-erdian toki zabal bat kaixa zar bat edo bi inguruan dirala.

Eta berengo maillan, eskatza ta lo-gela bi; aurrerago, ataria eta bertan txakur aundi bat kate lodiaz lotuta. Orma-ondoan astoa, zurezko astoa, mazoagaz jota bertan artaburuak garanduteko.

Etxe-barruan, atzeko aldean, kortea. Geunex beterik goi-aldean, abereak eta satsa be-aldean, lastategia kortearen gainean, eta alboan txarri-tokia ta ardi-tokia.

Etxearen atzean iturria ta ur-askea eta goi-aldeetik txakolin-gelea. Aurrean eta alboan untxien tokiak.

Etxeari dautsola barik, sastegia bitarte dala, labea; aurrean aterpe txiki bat, orman oilloak arrautzak egiteko toki bereziak erdian labearen agoa dala, barruan labea bera, ondo egiña, goi makotua ta be leuna dituala; erdi-inguruan, atze-aldeetik, ke-zuloa edo arnas-bidea. Laba onetan artoa igartuten genduan eta laba-sua egin ondoren patata gorringoak galdrostu. Labea utsik egoten da urte guztian eta iñoz oillo-lokak sartzeko edo, erabilten da.

Etxe-inguruan bertan, irureun eta berragei ta amar bat gizelan lur: Goi-aldeetik dana lanberatua, be-aldeetik solo bat, beste dana lantzarra. Eta atze-aldean basoa: etxe-ondoan arezti txiki bat, gero otadiak eta piñadi txiki bat. Errintxuago, oraintsu lardu genduan beko basotxua.

Solorik geienak matsez inguratuta dagoz eta etxeko bear dogun txakoliña egiten dogu urte guztirako. Datozen kanpotarrai be, baserrian zer-emon asko be ez da egoten eta, txakoliña emoten dautsegu etxeko lukainka zati batzukaz.

.....

ANTXE BIZI GARA.

Orixe da gure gurasoakandik artu dogun eta ainbeste maite dogun gure abia. Ortxe bizi izan gara baketsu ta zoriontsu, baiña ez beti dirutsu.

Etxeko guztiak egiten dogu lan, goizetik gabera. Neguan gitxiago: artoak zuritu ta olakoak. Udabarritik gora ereiteak, jorrak, gari-joteak, batzeak ta olakoak. Neguko bearra ez da izaten dogorra, baiña ekin egin bear. Udakoa astunagoa ta luzeagoa.

Gabetan etxean alkartuta otoitz egiten dogu, gitxienez agurtza deuna.

Domeketan mezarik ez dogu= uts egiten, eta arantzean eta onatzean auzokoakaz asteko barriak edesten doguz. Egia esanazokoakaz, urrintxu be bizi gara ta, beste artu-emon asko ez dogu izaten. Gure bizitzea, bakar-bizitzea da. Urrengo etxea Kafranga da, eta antxe bizi da geurearen antzeko sendi bat. Batxi dauko izena euren mutillak.

.....

MAITE-MIÑA.

Maiatzaren egun baten, beti lez, Batxi ikusi neban. Beti lez? Ez orixe.

Udabarriko egun pozgarri aretan, gure soloetako bedar orlegiak ta lora koloretsu artean, Batxi ez zan betikoa. Edo neu ez nintzan betikoa.

+Egunon, Batxi! Geur be artajorran?

-Bai, Mikela! Aurten urte euritsua dogu, eta bedarrak indartsu datorkuz. Gure soloak sarri jorratu bearko doguz, kaixetan artorik ikusi gara ba' dogu.

-Zu, Batxi! Atzo arratsaldean ez zindudan ikusi. Non egon zifian?

+Josebe'gaz ibilli nintzan arratsalde guztian.

-Zer? Biotzean ikutu dautzu ala?

-Ikutu andirik ez. Ain buru-ariña da! Gaur bategaz, biar beste bategaz, etzi ifogaz ez... Gaur negarrez, biar barreka, etzi adarra joten...

-Baiña zeu, orregaitiño, billa ba zabiltz!

-Billa, billa... bai.

-Eta zergaitik, lenengo ta bein, urriñera begira, auzokoai begiratu barik?

-Auzokoak alkar maite gara, Mikela. Baiña maitasun au beste era batekoa da. Sakonagoa ta sendoagoa, gura ba' dozu. Senide-artekoen antzekoa. Ez dozu uste?

-Ba leiteke.

-Gaiñera, nire ta zure gurasoen artean... adiskidetasun aundi-aundirik be ez dakit ba, dagon...

-Eta zer dauko orrek zer ikusirik? Geuk alkar ondo artzen ba' dogu...

-Benetan zabiltz gero? Ala Josebe'ren antzera gaur adarra jpten zu be?

-Ara, Batxi! Ez dot uste eziña danik. Bear ba'da, goitiko deia izan geinke au.

-Ia gero...! Baiña lan-eguna dogu gaur, Mikela. Eta uste dodanez, arlo luzeari oratu dautsagu. Ez da obeto izango domekarako iztea?

-Bai, egia da. Domekan eztitsu egingo dogu berba, Batxi. Agur.

-Agur. Domekara arte!

....

Maiatzeko goiz zoragarri a ez jat sekula aztuko.

Ain poz aundia neure barruan asmatu neban!

Eta ordurik ~~ona~~ gora ain bero maite neban Batxi!

I
Izan be neuretzako egiña lakoa zan: beargiña, erri-zalea, Jainko-zalea, eta... zergaitik esan ez? Mutil galanta!

Ordurik gora nire biotza ikututa egoan eta biotz-min pozgarri bat neure barruan asmetan neban.

Batxi'ren gomutamenaz, orduak egun eta egunak urte biurtzen jatezan.

U
Urrengo domekara artekoa, ondo luzea egin jatan.

...

Domeka-goizean zortziretako mezara joan nintzan.

Ani egoan Batxi be.

Eta zelako poza artu neban meza aretan! Mai Santuan biok batera izan gitan. Biotz-biotzez, auxe otoitza eginn neuntean Jaunari: "Jauna, zure deia au ba'

9)

da, jakin-azo egidazu!".

Baiña goiz aretan ez gendun alkarragaz barbarik egin. Ez gendun izan erarik.

Arratsaldean, al nebanik ondoen apaindu nintzan eta neure neska lagunakaz eleizara joan nintzan. Gero lagunak alde batera itzi eta Batxi'gaz ibilli-aldi luze bat egin neban.

Arratsalde pozgarria benetan!

-Azkenean eldu da, Batxi, domeka arratsaldea! Ain luzea izan da niretzat aste au!

-Neuri be luze egin jat, Mikela! Gaurko eguna gure bizitzan garrantzi aundikoa izan leitekela uste dot.

-Goizean Mai Santuan ikusi zaitut. Asko poztu naz!

-Bai neu be Mikela! Iñoz baiño otoitz beroagoa egin dautsat Jaunari!

-Eta zer eskatu dautsazu, Batxi? Esatekoa ba' da!

-Geroa ikusteko argitasuna! Bere delari erantzun-gurean nago eta Jaunak jazoeren bidez berba egiten dau. Lengo astelenean alkarragaz izan gendun ber-baldia... ez ete da orreitariko jazoera bat?

-Neu be orretan nago, Batxi. Eta ordurik ona biotz-min sakon bat asmetan dot. Eta zelako poza dakarst nire biotz-min onek!

-Benetan, Mikela. Ordurik ona alkarrai dautsagun maitetasuna ez da auzkoen artekoa bakarrik. Gure bizitzea osoan aldatu da. Gure artu-emonak barriak dira. Iñoz baiño urrago asmetan dot Jauna. Bion artean iñoz baiño geiago dago-lakoan nago.

-Mundu barri bat ikusten ^{dot} neure aurrean zabalik, Batxi; geroa. Zelakoa izango ete da!

-Jauna geugaz ^{da}, geuk egingo dogu gero ori. Gaur illunduez doa eta etxerako sasoi dogu. Oraindiño domeka asko daukaguz gerorako eginbideak artzeko. Geroa, uste dodanez, geroa konturatuez gure maitetasuna eldu egingo da. Gero Jaunaren aurrean eta erriaren aurrean berbea alkarrari emonko dautsagu.

-Gure ametsak beteko ete dira,Batxi?

-Zergaitik ez?..? Gabon Mikela!

-Gabon,Batxi!

Egia esan,neure maitasuna agertzeko gurari bizi bat asmau neban neure barruan une aretan.Baiña orduko oiturak beste batzuk ziran.Gure maitasuna,sakona eta sendoa benetan,berba utsez eldu zan.

....

Urrengo astean,gure artu-emonen barria errian zabaldu zan.

Iñork ez eutson txarto eritxi.

Bion gurasoak be jakin eben eta onartu be bai.

Astelen-gabeen amak esan eustan:

-I,Mikela! Atzo Batxi´gaz ibilli azela entzun joat.Egia don ori?

-Bai,ama! Gaur zortzi egun lenengoz berba egin gendun solo-munan.

-Eta uste don benetan dabillela?

-Ziur nago orretan,ama.Batxi ez^{da}guzurtia.Ba´zenki zelako poza daukadan!

-Bere gurasoak baiña ohea izango al don! Benetako senar-emazte-gai zaree?

-Alkar maite dogu.Baiña orain gauzak aztertu egin bear doguz geroari begira.Jaunak argi egingo al dausku!

-Ia ba! Ia ba! Beste batzuk be geure bidea aurkitu gendun eta zuek be aurkituko al dozue zuena! Izango al da beti zuekaz Jaun ona!

....

Barrero be domekea urreratu zan eta arratsaldeko eleizkizun-ostean alkar ikusi gendun.

-Arratsaldeon,Batxi! Zelan zúre astea? Oi dan lez?

-Gure barrien barria errez dago emoten,Mikela!Betikoa.Lan eta lan! Lu-rragaz burrukan!

-Zabaldu da erri guztian gure artu-emonen barria.Nire etxeakoak be jakin

-Bai. Oneinlako erri txikietan, beste barririk ez dago ta, barrituak arin zabaltzen dira. Eta ondo dago. Ori be alkartasunaren ezaugarri bat da. Txarragoa da kalaetan jazoten dana: alkarren ondoan bizi eta alkarren barririk jakin ez.

-Neuri be kaleko bizitzea ez jat atsegin. Eta zure etxeok zer diñoe, Batxi?

-Urteetan be ondo gagozela ta gauzak bere sasoiari ondo dagozela diñostu.

-Orain artean dana ondo. Ez da, Batxi?

-Bai. Orain arte. Baiña oraindik asi baiño ez gara egin!

....

^UGre arteko alkar-izketeak, arratsalde aretan, gai sakonera jo eban eta gai oneitan be eretxi bardiñekoak giñala jakiteak geiago poztu ginduzan. Egunak joan, egunak etorri, bion arteko jokabidea argiago ikusten gendun.

-Baserriko lanak atsegin jatzuz, Batxi?

-Baserria be geurea dogu ta... Nik beste ^Zer egiten jakin be ez dakit eta...

-Nire ustez, bizitza gogorra da, baiña... ara! Alderdi on asko be ba daukoz gero. Gizartean bearren diranak baserriko lanaren ondorenak dira. Ura ta gatza izan ezik, eta arratzaleakaz batera gabiltzala, janari guztiak ortik sortzen dira. Baserria, gizartea ⁱotsentzeko biderik onena da.

-Ori bai. Baiña beti txiro ta neke-artean biziteko be bai gero: jakituri barik, urietako gaurkotasun barik, gizon lez berengo maillan beti, eta, txarrena, gure ostean datozenentzat be bizitza bardiña.

-Baiña ori apur bat geure eskuari ez da egongo? Ara! Nik baserriarentzat aurrerapidea billatuko neuke. Ori, gaiñera, Jaungoikoak emon dauskun dei baten eskaria da, neure ustez.

-Bai. Mikela, baiña geuk bakarrik esko ezin egin.

-Auzkoakaz alkartu!

-Baserritarrak buztarripen sartzeko gaitza da. Eta, sartzen ba' dira be laster asiko dira besaka egiten!

-Erriko agintariak be lagunduko dauskue orretarako.

-Agintariak diñozu? Eta benetan zabiltz?

-Bear ba'da, urte batzuk barru, zeu izango zara alkate.

-Zer diñozu, Mikela? Ez dakizu Karlos'tarra izan bear dana orretarako?

-Ori gaur. Baiña urte batzuk barru?

-Ara! Egia esango dautzut! Uste dodanez, Arana'tarrak artu dabek bidea da gure Erria aurrera eroateko bide bakarra. Oneixek dira gure Erria aintzat benetan artu dabekak. Euskaldunak gara eta geure Erria aurrera eroan bear dogu. Orretarako gure Erriak bere buruaren jabe izan bear dau. Gure Erria geuk gaizkatzen ez ba'dogu, lan eu ez dau iñork egingo.

-Ori ez da gure aurrekoen eritxia. Baiña neu be orretan nago. Barriztau egin bear garala uste dot. Eta barriztau diran Karlos'tarrak, gaur, Arana'tar dira.

-Gure aurretikoak, apurka apurka, euskal-sena galduez joan dira. Eta bide orretatik, geuretu bearrean, iñortu egingo gara.

-Ikusten dodanez, gure sendia, euskal-sendia izango da, Batxi!

-Orixe bai gerò! Gure aldetik beintzat orretara joko dogu. Gero, gure ondorengoak be geuk daukagun azkatasuna izango dabe eta Erria euren eskuetan izango da.

.....

Onetan giñarduela, gaba ba etorren eta, neure etxera eldu giñan eta Batxi`ri esan neuntsan:

-Zu, Batxi! Erdu eskatzera ta nire gurasoak agurtu egizuz!

-Bai, zera!

-Zergaitik ez?

-Lotsa naz, Mikela!

-Tire! Tire! Kokoloa ez zaite izan. Goazen!

Sartu giñanerako, onelantxe berba egin neuntsen gurasoai:

-Gaur biok gatoz ba! Batxi be neugaz dator gaur!

Amak erantzun eban:

-Edarto egin dozue! Olanxe izan bear dau! Lotsarik ez bildurrik barik! Jexa rri, Batxi!..! Olan dala, benetan zabiltze!

-Benetan asi bai-esan eban albotik aitek- baiña oraindiño barri dira eta gazteen artean gorabera asko izaten dira ta...Norke jakin!

-Bai, orrelan da-esan eban Batxi'k, baiña gaurkoz beintzat argi ikusten dogu alkarrentzat garala. Eta ez uste izan ain barri garanik. Egunak eta illeak aurrera doaz!

-Zenbat denpora asi ziñela? itandu eban amak.

-Datorren domekan urtea, ama!-esan neuntsan.

-Ara! Atzokoa be ez da arlo ooi!-esan eban amak.

-Eta oraingoz ez daukagu eztabaidarik - esan eban Batxi'k, barretxua ez netan eukala.

-Orrek gero etorriko dira -aitak naikoa legor-, gero, gatzaren ardurea artzen dozuenean!

-Apur bat ezezkorra be ba zara gero, e? esan neuntsan.

-Ezezkorra diñon! Gero ikusiko don! -esan eban aitek len baiño legorrago.

-Orrelan dala, zeuen abia gertatuten be asi bearko dozue! -esan eban amak, apur bat berbetearen bidea aldatuez.

-Zer deritxazu, Mikela? Ama, aita baiño aurrerago doa ez? -esan eustan Batxi'k, kiñu egiñez.

-Bai orixe! Eta nik amaren antza geiago daukat! -erantzun neuntsan.

-Aurrera orduan, esanaz amaitu eban Batxi'k alkar-izketea.

.....

EZKONTZEA.

Nire gurasoakaz izan genduan alkar-izketa onen ondoren, estufasun eundi barik, geure gauzatxuak gertatuten asi giñan. Egia esan, aita oraindiño otz egoan, baiña gure erabagiak apur bat adoretu eban.

Baserria, geuretzako, geure gurariz apaindu gendun, Gure baserria naikoa

zabala zan ezkeru, zati bat gurasoai itzi geuntsen eta beste zatia Batxi'ren baserriari erantsi geuntson eta onelan ba geunkan non lan egin. Gurasoak, Batxi'renak eta neureak, gozamenean geratu ziran. Naste apur bat ba egoan, baiña baserri zabalak ziran ezkeru, naikoa arlorik egoan.

....

Azkenez, etorri zan baietzaren eguna, egun pozgarria benetan!

Apain-apain jantzi eta amarretarako joan nintzan eleizara. An eleizpean ikusi neban Batxi. Bere poza aurpegian agiri jakon, baiña baita orrelako ardua-^r-antz bat be ba eukan.

A bere amagaz eta ni neure aitagaz opal-maira urreratu giñan. Lenengo abade jaunak berbaldi labur bat egin eban: Geuk alkarrari laguntzeko eta zerurako seme-alabak azteko zala ikurton au esan euskun. Baita onetarako laguntasuna ugari izango genduala be. Gero alkarrari baietza emon geuntsan.

Batxi'ri abadea^y ipiñi eutsan elestuna eta gero berak niri. Berak amairu diruak emon eustazan eta nik artu.

Gero meza santua. Jaungoikoa gugaz eta bere deiari erantzuteko gertu.

Oiturea zan lez, ezkontza-osteko ibiltand^{ia} be egin gendun. Donostira joan giñan eta iru egun igarotakoak[^], etxera.

Bizikera barri au pozez artu gendun: alkarragaz lan, alkarragaz jan, alkarragaz nekeak eroan, alkarrantzat atsegin izan, eta, batez be, alkarragaz otoitz egin. Jan-aurrean beti "Aita Gurea" esaten gendun, gabetan beti agurtza deuna, eta gabeko otoitzak be batera egunoro.

Nire ama izateko ametsak be bete ziran. Gure maitasunaren lenengo ondorena mutilla z^á. Alberto izena ezarri geuntsan. Urte bigarrenean, jaio zan mutilla-ri, Sabin izena ipiñi geuntsan. Gero Garbiñe ta Zuriñe etorri ziran. Gure bizi-tzea bakez eta esan-bearreko barri barik aurrera joian: umeak aziez, geu sendotuez, gure baserria obetuez... Dana ondo, bear ba'da lar ondo.

.....

BATXI ALKATE.

-I, Batxi! Errian alkate-billa dabiltzala entzun dok?

-Ez. Ez jakiat ezer. Baiña itzi egiuek! Euren erakoren bat izango dok!

-Ez, gizona! Aurten ez dok orrelan!

-Zelan ba?

-Autezkundea jagok!

-Ta zer?

-Zergaitik ez joguk bear dan lako gizon bat aukeratuko?

-Amets ederra dok ori! Ainbeste gauza jagozak errian egin bearrekoak!

-Ez izango intza^{te}ona orretarako!

-Bai! Eta laguntzaille asko eukiko neukezak?

-Gero ikusiko joguk! Talde bat alkartzen ba gozak, nik baietz uste joat.

-Arrisku aundiko jakoa dok ori, gero!

-Eta zergaitik ez gozak ba, arriskuan sartuko?

-Arriskuan sartzea bearrezkoa dok, baiña zurtasun apur bat ez dok txarra!

-Neuk egingo joat burubide onen zabalkundea!

-Ondo jak! Ikusiko joguk nora eltzen gozaken!

Auxe izan zan, gitxi gorabera, gure Batxi'k erriko gizon zintzo bategaz izan eban alkar-izketea. Batxi'k gura ba eban, baiña itxaropenik ez eukan.

Autezkunde-eguna etorri zan. Gure Batxi'k abertzaleen aldetik eukan laguntasuna ta autarkiak. Eta alkate urten eban. Bizkai'ko erririk geienetan abertzaleak irabazi eban.

Ni, alde batetik, arduraz nengoan, arazo sakonak agiri ziran eta, baiña baiña pozik be. Erriaren alde zer edo zer egiteko errea geunkan.

Arerioak be ba egozan, baiña olakoxea zan gure mundua orduan: alkartu eziña, alkar ikusi-eziña. Eta areriorik txarrenak ez ziran erbestekoak, ez.

Geure artean egozan. Guzurrezko euskaldunak ziran.

Amar urte inguru egin zituan gure Batxi'k alkatetzen: Urak ekarri, ziran, auzotegietara bide barriak egin ziran, ikastolak barriztu ziran, ikastoletan erri-komumeai euskeraz irakurten eta idazten irakasten jaken, erriko jaiak ederto eraturten ziran... Erria pozik egoan.

Baiña agertu zan zori txarreko gudaldia. Euskaldunak erkal-zaleakaz bat egin gendun eta Karlos'tarrak eta falanjistak be batu ziran eta urten eban urtetakoak!

.....

Egun baten Batxi'k auxe eskutitza artu eban. Euskeratuta, dan lakoa ipiñiko dot:

"Jaun agurgarria: Gure gauzak aurrera eroateko, bear-bearrekoa dogu erria garbitutea. Orretarako, zure laguntasuna bear dogu. Erriaren izenean, eskatuten dautzugun ezkerro, erri-zalea zafana ba dakigu ta, laguntasun au ez dauskazula ukatuko, uste dogu. Esan egoguzu, lenbaitlen, zeintzuk diran zure erriko Karlos'tarrak eta falanjistak. Madrid'eko erkal-zaleen buruak arerio oneik espetxeratu gura ditu. Bestera ez da izango gudea irabazteko erarik. Ba dakizu. Erkal-zaleen buru darenaren agindua da. Zure erantzuna itxaroten nagon onek, biotzez agurtzen zaitut." Jeronimo Díaz (Bizkai'ko Jaurlea).

Batxi, karta au artutakoan, ikaratu zan eta zertara ezean egoan. Nik esan neutsan:

-Zer egiteko ustea dozu, Batxi?

-Txarreanean be, iñor salatu ez. Baiña iñor salatu ezik, neure burua salatzen dot. Zer egin neinke, Mikela?

-Leku txarrean zagoz, benetan, Baiña ez bildurrari jaramonik egin gero! Zuk ba dakizu zen dan zure eginbearra!

-Bai. Ori orrelan da!

Urrengo egunean, erriko idazkariari (erbestetik etorriko ganora bako bat zan berau) auxe esan eutsen:

-Eskutitz oneri auxe erantzuna emongo dautsazu: Erri onetan guztiok gara Errizaleak eta Erria aurrera eroan gurean gagozanak. Ez dago iñor espetxeratu bearrekorik.

Idazkariak erantzun eutsan:

-Ba dakizu gero zer egiten dozun? Gaiñera ori guzurra da!

Batxi k auxe baiño beste erantzunik ez eutsan emon:

-Zu ez zara euskalduna eta euskaldunen gauzetan ez zaite sartu. Zuk idatzi egizu esan dautzudana, eta gura ez ba dozu, nork idatzi izango da.

+Nik idatzi egingo dot. Gero zeuk ikusiko dozu- esan eutsan idazkariak.

...

Arik egun batzutara, erkal-zaleen izenean, ertzain batzuk etorri ziran erri-
ra eta, jakiña, alkate jaunaren barria eskatu eben.

-Egunon, alkate jauna! Zelan dabil zure erria?

-Bakea daukagu emen!

-Erri-barruan arerieak ei daukazuz eta euren alde ei zagoz!

-Nik dakidala ez daukat areriorik. Ezin egon arerioen alde, euki ezik!

-Kontuz ibilli zaite! Agintariak ez daukazuz zure alde!

-Onulari on^aak zaree! Eskerrik asko! Baiña zuek zeuena egizue ta nik neurea!

-Bai, Bai. Ondo dago! Baiña ez uste izan azkenengo ikustaldia dozunik...

-Geiago ezer esan bear daustazue?

-Ez. Ez.

-Agur ba.

-Bai. Agur.

...

Nire gizona geroago ta sendoago egoan, baiña ni geroago ta bild^urt^uago.

Oneik lako gorabera asko izan zituan. Berak ez eban inortxu be salatu.
Erritarren alde jokatu eban beti, baita eritxiz bere aurka eukazanen alde be.
Eritxietan zintzoa ta zeatza zan. Baiña gizonari, gizon lez, izaltasun aundia
eutsan.

Gudea etorri zan. Arerioak indarrez Erria artu eben eta Erritar batzuk
gudan il ziran. Baiña gero etorri ziran etortekokak.

Alkate barria ta maiko barriak goitik ipiñi ebezan udal-etxean.

Laster deitu eutsoen gure Batxi'ri:

-I, Batxi, ikastola barriak lareun milla pezeta kosta ei zoazen eta goitik artutako dirua milloerdi ei zoan. Egia dok ori?

-Orregaz zer esan gura dok? Lapurretan egin dodala?

-Ez jakiat ba! Orain kontuak argitu egin bearko dozak. Orain ez dok lenago lez!

-Ik esan dokena guzurra dok!

-Ez jakiat ba! Ez jakiat ba! Ta gafiñera i bizkaitarra az! Ori ez dok ukatuko!

-Ta eu zer az ba?

-Ni Karlos'tarra! Ori ba dakik!

-Ta zer esan gura daustak kopla òneikaz?

-Ez jakiat ba nik! Kontuz ibilli adi. Zuen astoa il zoan eta orain lurperatu egin bearko joguk! Lengoak amaitu dozak. Kontuz ibilli adi!

Alkar-izketa au izan zan egun beratan ertzain bik artu eben Batxi gurea eta etxetik eroan euskuen. Espetxean egin zátuan urte batzuk.

.....

BATXI ESPETXEAN

Epaikundea zalako bat be egin eutsoen. Aurreko egun baten eskutitz au egin eustan:

"Biotzeko Mikela: Errurik ez dodala jakin arren, emen nago. Gizonak arerio izan arren, ondo dakit Jauna lagun dodana eta orrexek poztuten nau. Eta zuek zelan? Zuen gomutapena beti daukat buruan. Ba dakit zure bizitzea gogorra dana: samintasuna ta lana ugari izango dozuz. Lau seme-alabak, txikiak izan arren, al daberen bestean lagunduko datzue eta eurak izango dira zure samintasunaren poza. Egún gitxi barru epaituko nabe eta ba leiteke askatasuna lortzea. Ori da nire itxaropena ta poza. Baiña nork jakin ziur?

Lantxu bi emon bear òautzudaz. Ba dakit pozik egingo dozuzena.

Abadeari ta alkateari nire jokaeraren agiria eskatu egiezu. Agiri

oneik nire alde ba'dagoz, askatasuna ziurra izango da. Uste dot emongo dautzuezel.

Geñago barik, Mikela, Ondo ibilli eta ondo zaindu gure txikiak. Batxi".

Lenengo alkateagana joan nintzan eta agiria eskatu neuntsanerako auxe esan eustan:

-Zuk ondo dakizu Batxi beti urtene izan dana, abertzaleen artean urtenena. Nik zelan ukatu neinke ori? Neu txarto geratuko neinteki!

-Zuk ba dakizu bizia nori zor daukezun?

-Zuek ori daukazue beti buruan, baiña ori jakiten ez dago errez!

-Ketoa ez zaite izan, bera zeugaz izan dan lakoa izan zaite beragaz!

-Ordukoak lako denporak ez dira gaurkoak!

-Ez dakit ba, gizonak be ordukoak lakoak zaren!

-Ara Mikela! Esan bear ez zekazen berba asko esaten zabiltz. Zoaz. Biar erdu agiriaren billa.

.....

Urrengo abadeagana joan nintzan.

-Egunon, jauna!

-Egunon, Mikela. Noz datortzu gizona?

-Ain zuzen be, orrezegaitik natorko ba. Bere jokabide onaren agiria emongo eta daustan edo... Laster epaitu egiten dabe ta!

-Ai, gizajoa! Gizon ona benetan! Baiña zertarako sartu ainbesteraño!

-Zertan sartu zan ba, jauna? Guztiai on egiten izan ezik?

-Alkate be izan zan eta!

-Ori be pekatu da ala?

-Ez. Ez. Pekatu ez! Baten batek izan bear!

-Bere jokabide ona ez dau ukatuko, ez da?

-Jokabide ona ez. Baiña beste gauza asko be esan egin bear. Biar etorri zai-

te.

-Biar arte ba, jauna. Agur.

Urrengo egunean joan nintzan billa. Arduraz igaro neban gaba. Alkatearen bildurra ba neukan, baiña abadeagandik itxaropen txarrik ez neukan.

Alkatearen agiriak onelantxe iñoan:

"Biotz txarreko gizona ez da, baiña abertzaleen artean nagusi izan da eta bere alkatetzako egiteak, batez be diru-arazoetan, ez dira ain garbi agertzen".

Alkateagaz berba egin gura neban, baiña iñondik iñora ezin aurkitu: ostera batera joan dala! Basotik zala! Bei-erosten zala...!

.....

Gero abadeagana joan nintzan, berak esan eustanez.

-Ai, andratxua! Zelako inguruak eta arriskuak dakarstazuz! Ez dakizu agiri ona emotea niretzat arriskugarri dana?

-Arrisku aundiagoa nire gizonarentzat ~~berorrek~~ agiri ori ez emotea!

-Bai. Bai. Baiña ni/zer egingo dautsat ba?

-Lagundu! Berak be sarri lagundu eutsan berorreri ta!

-Orduan bai! Baiña orain gaitxago da! Orain gauzak gogor dagoz!

-Zer orduan? Ez daust egingo agiri ori?

-Ezin ba, andratxua, ezin!

-Zergaitik?

-Ez nagizu itaunez estutu! Zuk ondo dakizu zure gizona zelako adiskidea dodan!

-Antzik ez dago ba jauna! A il arren berorreri ez dautso ardura.

-Ez egizu olakorik esan! Zoaz etxera. Jaungoikoak dana daki. Berak urtengo dau zuzentasunaren alde.

-Berori ez da ba, Jainkoaren ordezkoa munduan?

-Bai, baiña eleizako gauzetarako, ez ^{le} politikarako!

-Ipiñi begi, orduan, berorren agirian, ^{le} gaitxienez, Batxi kristiñau ona dala.

-Pozik ipiñiko neuke, baiña gaur gauza oneik beste era batera ulertuten dira. Dana dago naste ikaragarri baten.

-Jauna, auxe ez neban itxaroten. Berorregaitik nire gizona ilgo dabe! (Eta negarrak urten eustan).

-Ez zaitte esutu orren ebeste! Zure gizona laster etorriko jatzu, Mikela! Jaungoikoa errubakoen alde dago. Agur, Mikela!

Negarrez abade-etxetik urten nintzan.

Etxera eldu nintzanean, Batxi'ri eskutitza egin neuntsan:

"Neure biotzeko Batxi: Eskutitz au negarrez idatzi bearreko aurkitzen naz. Ez neban uste gizonak ain biotz txarrekoak eta bildurtiak ziranik. Alkatearen agiriak kalte egingo dautzu mezede baiño geiago eta abadeak ezelako agiririk ez daut emon; Jaungoikoak lagunduko dautzula diño. Eroapena baiño beste biderik ez daukazu, Batxi, eta datorrena artu bear. Gure txikiak oso ondo dabiltz eta guztiok zure gomutapenez bizi gara. Besterik ezin dogun artean, Jainkoari erregu egingo dausegu, arin gure artera etorri zaitezen. Ez itxaropenik galdu, Batxi. Barrero be egun pozgarriak etorriko dira. Nire lanak eta samintasunak ezer ez dira zureen ondoan eta zeugaitik eroateak gozotuten ditu. Benetan maite zaitudan zure Mikela'k".

.....

Bost urte egin zituan espetxean gure Batxi'k. Zelako poza etxean andik etorri zanean!

Egin eutsoezanak egin arren, berak ez eutsan iñori gorrotorik. Egia esan, gauza batek asko munduten eban: Erriko jaietan aurrerengo jarlekuan alkatea ikusteak. Axe alkatea ta axe abadea bat eginda ikusteak. Baiña ori ta guzti be Ezeizea maite eban eta erri-gaitik lana egiteko gertu egoan.

Bere seme-alabai erri-miña arrerazoten alegiñak egiten zituan, eta ez alperrik egin be!

.....

I I

A L B E R T O A B A D E A

ABADE-GAI.

Uda-barria zan. Oraindifio Batxi espetxean egoan.

Gure basetxeko lantzarretan, bere otoitz-liburua eskuetan, abade-jantzi luze ta baltza soñean, astiro-astiro, otoitz-eginez, erriko abade jauna etorten ikusi neban.

-Egunon, Mikela! Zelan gabiltz Landabarri-aldean?

-Gu ba daki, jauna. Beti lez, Eta berori?

-Abadeak beti ondo, Mikela, Alan difioe beintzat!

-Ta zer? Bake dakar, jauna?

-Bai Mikela. Bake. Zugaz berbalditxu bat egin bearrean nago. Orretarako nator.

-Sartu beite eskatzera, jauna!

...

Ataurrean geunkan txakurrari eutsi neuntsan, ~~katetik sendo estuta~~ oratuta, eta bera ausika gogor ebillala, sartu zan D. Kristobal eskatzera. Jarlekua artu eban eta maia aurrean ipiñi neuntsan eta maiaren gainean zamau zuria.

-Zer artuko dau jauna? Lukainka zati bat eta txakolin gorria?

-Nire etorrereagaitik ez zaite artegatu, Mikela. Ez daukazu ezer atera bearrik.

-Nekez etorten da, jauna, eta gaur etorri dan ezkeru, artu beist zer edo zer.

-Ez naiatzu eskar txarrekoa izango Mikela! Artu egingo dautzut! Eskerrik asko.

-Zu, Mikela! Alberto txuk barririk emon dautzu?

-Ez, jauna. Barririk dago ala?

-Zer edo zer bai.

-Okerkeriren bat egingo eban arek, bera apur bat gaiztoa da ta. Gaiñera sasoa beez txarra.

-Ez dozu benetan esango Alberto okerra danik? Odol berokoa bai, eta zaintsua be bai ba da. Baiña biotz zabala, ^{ñor} ez lakoa eta zuzentasun-zaleen artean nagusi.

-Eta zer esan gura daust Alberto'ri buruz?

-Ara! Lengo egun baten, ~~ki~~ stistinau ikasbidea umei azaltzen nebillala, abadetzea zer dan azaldu neuntsen. Gero abade ^aizteko gurariz iñor ete egoan itandu neuntsen eta Alberto'k bizi-bizi erantzun eustan:

-Neu!

-Ori umearen naikeri bat izan daitekela ez dau uste?

-Barru-barrutik urten eutsan ba! Eta aiñ arin erantzuteko, ez zan iñoz buruan erabili bako gauzea izango, Mikela.

-Egia esan, niretzako pozik aundiena litzake seme bat abadea izatea. Eta uste dot Batxi'k be bere naigabeetan poz aundi bat artuko dauala berri au emoten dautsadanean.

-Batxi gizejoa! Noz etorriko ete da?

-Ez dakit ba, jauna! Berorrek be aterako ^{te} indar aundirik ez eban egin eta! Gaiñera, ~~beste~~ berorren lagun kutun batzuk be...!

-Guk zer egin geinkean ba, Mikela? Burutasun orreik kendu egizuz!

-Berak orrelan baiño zintzoago jokatu eban ba!

-Bai. Batek baiño geiagok dautse bizia zor. Baiña itxi ^z dagiguzan alde batera gorabera nastatuok eta goazen geurera. Datorren ikaste-urterako Alberto gertatuteari ondo deritxazu?

-Nik bai, jauna, Baiña berorrek ondo dakianez, diru-aldetik oso urri gabiltz gero!

-Bai. Ori be ba leiteke. Baiña erdia-inguru uste dot zuzenduko dogula.

-Orrelan ba'da, geu be apur bat neketuko gara ta...

-Ederto, Mikela. Gaur irakasleagz berba egingo dot eta iraillerako sarrea gertatu dagiala.

-Gaurkoz ba noatzu, Mikela, z^lregintxu batzuk be ba daukadaz eta.

-Agur ba, Jauna. Etorri sarritxuago gero, aurrerantzean!

-Emen ez ba da, eleizan alkar ikusiko dogu. Batxiri gorantzi asko emon!

-Bai. Apur bat minduta ba dago, baiña biotz-zabala data...

-Agur ba. Mikela!

-Agur, jauna!

Berriro txakurra lotu neban eta gure erriko abadea joan zan lantzar orlegiko bide-zidor batetik errirantza.

.....

Arik laster etorri zan Alberto eskolatik.

-Arratsaldeon, ama!

-Arratsaldeon, Alberto! Amantzako be ixilpekotxuak, ez dok!

-Zer diñostazu, ama? Nik ez daukat ixilpekorik zuretzat!

-Ez gero?

-Ez dot uspe!

-Lengoan, kristiñau-ikasbidean zengozala, zer esan eutsan abadeari? Euk abade izan gura dokela edo...!

Alberto k, arpegia gorri-gorri eginda, erantzun eustan:

-A! Bai!

-Eta zer? Benetan diñok ori, Alberto?

-Bai, ama! Sarri orimpentzetan egon naz eta azkenean erabagá dot. Abade izango naz.

Benetan barri pozgarria emoten daustak, Alberto! Gaur gure Erriak bear dauzen abadeatariko bai izango al za az! Gure Erriaren salbatzaillea, eta Erriaren askatasuna ekarriko al dok, beñola Moisesek bere Erriari ekarri eutzan lezi!

.....

Uda-goiena etorri zan eta gure Alberto abadegaitxera joan zan. Izan zituan

an be arazo gogorrak. Baiña berak obeto azaldúko ditu bere eskutitz batem^m.

Erderaz idatzi eustan. Eta zelako samintasuna neure barruan, neure semeak erdera egiten ebalako! Baiña neuk neban errua, ez neuntsan euskeraz idazten irakatsi eta.

Neuk euskaratuta dator ba Alberto'ren eskutitz au:

"Ama maite: Gaur zortzi egun ona etorri nintzala. Baiña au ez da nik us-te neban lakoa. Samintan eta neke asko igaro bear izan dodaz eta danak gar-bi-garbi azalduko dautzudaz. Ba dakizu zuretzako ixilpekorik ez daukadana.

Irakasleak onak dira, baiña oraindiño berbatxu bat be ez dot entzun euskeraz. Eta nik erdera ondo-ondo ez dot egiten eta lagun batzuk barre egiten dauste. Eurak be euskerarik ez dakie, baiña nik ezin barrerik egin. Lengo egun baten, eurerariko batek ura burutik bera bota eustan eta busti-busti egin nindun. Euren aurrean gogor agertzen naz, baiña ixillean samurtu egiten naz eta negar egiten dot.

Ikas-aldietan, dana ez dot ulertzen, irakasleak "politika" askogaz erdera egiten dabe ta. Baiña oneik asierako gaiztasunak dira eta errez igaroko dodaz.

Lengoan, olgetan genbiltzala, lagun batek auxe itandu eustan:

-I, Alberto, ire aita non jauk?

-Espetxean.

-Zer egin jok ba? Lapurretan edo?

-Ez nire aita ez dok lapurra, ez orrelakoa!

-Ik ori difok. Baiña ab ba jagok zer edo zer izango dok.

Gero mutil orrek lagun guztien artean zabaldu dau gure aitaren barria eta irakasle batek deitu ta esan daust:

-Egia dok ire aita espetxean dagoana?

-Bai, jauna.

-I ez az aitaren antzekoa izango gero! Ala i be bizkaitarra az?

-Nire aita ona da, jauna.

-Bai. Ona izan leitekek, baiña erriketa-gaietan ibilli dok oker. Eta uste joatenez, eu be antzean abil eta lagunak be ei daukozak. Ara! Izendegi bat ekarriko duat eta izendegi orretan eure ustez bizkaitarrak dozakenai gurutze bat ondoan ipiñi juek.

Eta izendegi ori ekarri egin eustan, ama. Eta nik neure izenaren ondoan ipiñi neban kurutze bat eta ez besteren ondoan. Nik ez dakit ortik zer etorri leitekén, baiña edezelan be saririk ez. Zer deritxazu, ama? Ondo egin dot?

Oraindiño barri asko daukadaz, baiña gaurko naikoa dala uste dot. Agur, ama. Urrengora arte. Erregutu nire alde.

Zure: Alberto".

....

Olako goraberak naikoa sarri izaten ebazan Alberto'k abadegaietxean.

Beste egun baten, erri apurtu bateri buruz idazlan bat egiteko agindu outsoen. Berak, Gernika burura etorri jakon eta, Gernika'ri buruz egin eban lan ori. Bere ezilariak gogor artu eban eta abadeak erriketatik urrin egon bear dau ala esan eutson.

Orixe zan, ain zuzen be, abadegaiari emoten jaken eziketea: Erriketatik urrin ibilli eta " abade utsak, danean abadeak, eta beti abadeak" izan.

Baiña Alberto'k barruan eukan benetako erri-miña eta noizean bein ezalera agertzen jakon. Orduan kontuak!

Ain biotz onekoa zan lez, aurrera egin eban eta abade agin zan.

....

ABADE TA ERRIRA.

Abade egingo zan aurre-egunean, Gotzain jaunak deitu eutsen.

-Alberto! Biar abadegintzea artzeko ustean ago, ez da?

-Bai, jauna, bake ba'da.

-Abadegintzea artu baiño len, onutxu batzuk emon bear duazat.

-Berorrek nai dauan lez, Gotzain jauna.

-Bizkaitarra azela entzún joat.Egia dok ori?

-Eritxiak aske dira~~l~~akoan nago,jauna.Baiña erakutsirik ez dot emon.

-Ara! Abadeak errikerietatik urrin egon bear jök eta uste joat ori dokela ire naia be.Orregaitik,iru gauzatan berbea emon bear daustak.

-Zeintzutan,jauna? Ez al dira izango ezifñak!

-Ez:Ez.Bete gura ba^adozak,errez-errezak dozak:Eure eritxian,euzkadirik iñoz ez dokela izan,ez eta izango be;eure egite guztietan bidezko agintariak aintzat artuko dozakela;eta eure abadetzaren bidean ez jagokazan erriketa-arazoetan ez azela sartuko.

-Berorren baimen^az,jauna,leñengoa apur bat aldatuko ne^muke eta onelantxe ipiñi:Euskalerrria,abade lez maite dokela eta bertan abade-lana egingo dokela. Berorrek auxe onartzen ba^adau,beste bietan ez daukat eragozpenik.

-Ondo jauk.Orduan,iru gauza oneik beteko dozakela,zin egik:

Euskalerrria,abade lez maiteko dokela eta bertan abade-lana egingo dokela zin egiten dok?

-Bai,jauna.Zin egiten dot.

-Eure egite guztietan bidezko agintariak aintzat artuko dozakela zin egiten dok?

-Bai,jauna.Zin egiten dot.

-Eure abadetzaren bidean ez jagozakan erriketa-arazoetan ez azela sartuko,zin egiten dok?

Bai,jauna.Zin egiten dot.

.....

Urrengo egunean egin zan abade gure Alberto.

Gero,etxera etorri zanean, Gotzain jaunari emon eutsan berbea azaldu eustan: Iru zifñak entzun nebazanean,ikaratu nintzan eta esan neuntsan:

-Ez dok uste iru zin orreikaz,eure eskuak lotu dozakela?

-Ez dot uste,ama.Bear ba^ada,Gotzain jaunaren eritxiak eta nireak ez dira bardifñak.Baiña berbetan,gitxienez, batera goaz.Neure ustez iru galetan,barru-barruan,ez goaz batera:Euskalerrrian abade-lana zer dan,bidezko agintarian zein-

tzuk diran, abadetza-bidean ez dagozan arazoak zeintzuk diran. Baiña nik, bene-benetan zin egin egin dot. Iru gauza orreik zintzo eta zeatz beteko dodaz: Euskalerrian abade-lana egingo dot, bidezko agintariak aintzat artuko dodaz, abadearenak ez diran arazoetan ez naz sartuko.

.....

Esan eban bere meza-barria Alberto'k eta Gotzain jaunaren aginduz, bere erri barrira joan zan.

Baserritarrak ziran. Erritik ordu-laurebera, lekaime-etxe bat egoan. Ementxe izan ebazan lenengo arazoak Alberto'k.

Lekaime guztiak erdeldunak eta erdel-zaleak ziran.

Egun baten, lengo abadea lagun ebala, joan zan Alberto lekaimeai ikustaldia egitera. Deituteko txintxil bat jo eban eta laster etorri zan atezaiña:

- Agur Maria, guztiz garbia!
- Orban bage sortua!
- Abade barria dozue eu - esan eban lengo abadeak.
- Egunon, jauna! Zelan dago berori? Jakitun gara abade barri bat daukagula.
- Gaur etorri naz erria ikustera ta zuok be erria zareelako natortzue.
- Ederto, jauna. Oraintxe esango dautsat nagusiari.

Nagusia etorteko zan artean, Alberto'k esan eutsan lengo abadeari:

- I, oneik euskerarik ez jakiek?
- Tutik be ez!
- Eta zer egiten juok ba Euskalerrian?
- Erria maketotu. Berreun euskaldun inguru egoten dozak mezatan.
- Eta mezak be erdera izaten dozak?
- Ez ba ze! Asi adi orreikaz burrukan...!
- Egin bearko joguk, Erria salbau gura ba'joguk.
- Egunon abade barriari! Zelan berori?
- Ederto! Ta zeu?

-Ondo, Jainkoari eskerrak!

Eta ordu-lauren bat egin gendun ardura bako gaiari buruz berbetan.

Eldu zan urrengo domekea eta Alberto'k erderaz eta labur-laburrean, auxe esan eban: "Lekaimeak izan ezik beste meza-entzule guztio~~k~~ euskaldunak zarezela uste dot. Lekaime^ak Erria otseintzeko etorri diran ezkerero, Erria'ren berbetaz mezea egin bear dabe. Orregaitik, gaurtik aurrera mezak euskeraz izango dira" Eta gaiago barik, mezea euskeraz asi eta amaitu eban.

Etixerantza doazela baserritarrek onelan ziarduen^a :

-Itzala bota jok! Pozgarriak izan dozak abade barriaren gaurko berbak ~~eta~~ eta berak egin jokana! Geuretasuna be galduta gaiagozak eta...!

Lekaimeen buruak ez eutsan berbarik egin. Ezpanak zorrotz ditula alde egin eban. Gero barruan bere aitzai esan eutsen:

-Au ezin gainke onartu. Abade-barria bizkaitarra da, eta Gotzain jaunari jazorikoa azaldu bear dautsegu. Eleizea ez da erriketarako, otoitzerako baiño eta guk zelan egin geinke otoitz ulertzen ez dogun izketa baten? Gaiñera norik ez daki erdera?..? Laster ikusiko dogu noraiño eltzen dan abadetxu ori!

...

LEKAIMEAK.

Lekaimeen buru zana, beste aizta bategaz, Gotzaiñagana joan zan. Gotzaiña, lekaimen^{el} lagun aundia be ba zan eta, oso asarre jarri zan.

Urrengo egunean, Alberto'k eskutitz au artu eban:

"Neure abade maite: Ire erriko lekaimeak oso asarre etori^{hvt} jatezak, aurak ulertzen ez ~~deben~~ = jabeken izkuntzan mezea emon dautsekela ta. Nik ez jakiat ori zergaitik egin doken. Mezea lenengo ta bein lekaimentzat dok, gero erriarentzat. Erritarrak guztiak, obeto edo txartoago, ba jakiek erdera berbetan eta erderaz egin ezkerero, lekime ta erri, guztiak jagozak pozik. Orain artean orrelan izan dok beintzat. Baiña ba jakiat ik atzera egingo ez dokana. Orregaitik auxe erabagia artu joat: ik lekaimeen eleiza orren arazoa itzi egik eta beste bat orre joango dok. Eure parrokian egik lan. Uste joat ontzat artuko daustakela erabagi au, arimen onerako dan ezkerero. Nire onespena emoten duat eta ire alde otoitz egingo juat".

Alberto'k itzi eban mezea an esatea eta erbestetik etorri zan abade bat ara mezea esateko. Baiña ango eleiztarrak zurtu ziran, inguruko abade asko ba Alberto'gaz alkartu zira eta Gotzain jaunak bere erabagia aldatu bearra izan eban: barrero ipiñi eban Alberto ango arduradun eta mezea euskeraz esaten eban.

Zenbat kalte egin daben gure izkuntzearen bideetan lekaiameak!

Zergaitk eta da lekaiame euskaldunak erbestera eta erbestekoak gure Errira erabiltea?

....

ESKOLEA.

Martitzen bat zan. Goizeko bederatziretan erriko ume guztiak euren eskolara sartu ziran.

Gerotxuago ara joan zan Alberto ^{ango} ~~bera~~ ikasleak eta irakasleak agurtzera.

Maixuak, jakifia, erdeldunak ziran eta, ez ori bakarrik, euskarearen arerio gogorak.

Alberto oso mñdu zan. Erderarik arean be ez ekien umeak euskerarik tutik be ez ekien maixuakaz! Ezin ezor ikasi amar⁴ maika urtera arte beintzat! Beste alde batetik ba ekian UNESCO'ren legeak iñoana: Umeak, amaika urte bete arte euren amagandik artu daben izkuntzan ikasi bear dabela.

Eta zelako diabrukeriak egiten ebezan irakasle areik umei euskerea galazoteko!: Euskera egiten dauana astoa dala iñoan txartel bat zamatik eskogi, euskera egiten daben bakoitxean pezeta bat kendu zigor lez, euskera egiten dauanari elastun bat euki-azo, urrengo egiten dauanari emoteko....

Goiz aretan asi zan alkar-izketea, eta jakifia, Alberto'k bide zuzena erakutsi eban.

Irakasleak oso gogor jarri jakozan: Euskerea ez dala ezertarako, euskerea kaltegarri dala umeentzat, euskera-zaleak guzurrezko erriketa baten sartuta dagozala... Eta⁴ zkenean esan eutsoen: "Gure eskoletan sekula berba bat euskera ez da egingo".

Alberto'k erantzun eutsoen: "Ni martitzenetan etorriko najatzue eta berba bat be ez dot erdera egingo".

"Ori ikusiko dogu"- erantzun eutsoen.

Urrengo martitzenean, sartu zan Alberto eskolara. Aurpegi gogorrak aurkitu zituan, baiña asi zan euskera azaltzen. Onetan egoala Begiratzaillea sartu zan:

-Egunon! Abade jauna! Zelan dago berori?

-Egunon! Begiratzaille jauna. Ederto, ta berori?

-Barria da erri onetan, esan daustenez!

-Bai. Barria naz.

-Ia guztiok batera lan egiten dogun, erri onetako umeen onerako!

-Orretarako gara, Begiratzaille jauna!

-Baiña, ara! Euskera egiten entzun dautzut eta ezin geinke onartu!

-Zergaitik ez? Ez ete dira euskaldunak ume oneik?

-Bai euskaldunak dira. Baiña España'ko legepean gagoz.

-Eta zer da beñago: legeak estu artzea al ^obar dan lez irakastea?

-Berorrek ondo daki, jauna, euskerea galdu arren gitxi galtzen dabela oneik.

-Ori ez da orrelan, bagiratzaille jauna! Izkuntza bat galtzea, galtze aundia da. Gaiñera, izkuntza erri baten agertzea da eta euskerea il ezkeru laster ilgo da gure Erria. Eta, askok ori gura dabe, baiña ez dabe lortuko.

-Gure Erria España da, jauna, ete bere berbetea gaztelerea. Baiña...

-Gure Erria Euskalerria da eta bere berbetea euskerea.

-Izi dagiguzan gorabera oneik. Agur jauna.

-Agur!

Alkarrari eskua emonda agurtu ziran Alberto ta Begiratzaillea. Baiña ez ba-kez. Alberto'k, egun batzuk garrenean, Gotzaiñaren eskutitza artu eban:

"Neure abade maitea: Lenengo maillako irakaskintzarako Begiratzaillea etorri jatak oso asarre. Bere aurrean bizkaitar agertu ei az eta umeai be bide ori irakasten ei dautsek eta eskolan euskeraz irakasten ei dok. I beti bardin. Ez juat uste ifnoz osatuko azenek. Baiña konturatu adi. Bakea bear joguk lan egiteko. Ez adi geiago ikastolara jpan eta eleizam irakatsi egin gura doken eran. Uste juat nire onu au onertuko dokela. Nire onespeña emonaz agurtzen doat".

Alberto'k onu' au be onartu eban eta kristiñau-ikasbidea eleizan irakasten eban. Baiña nik igarri neñtsan, berak esan ez arren, Alberto'ren barrua berotuez joiala.

....

ELEIZEA.

Beste oinkada bat.

Etorri ziran erriko jaiak, San Andre'sa'k.

Alberto zutuz eginda geratu zen, eleizearen lenengo aurkietan erriko agintariak eta euren aurrean España'ko ikurrin aundi bat ikusi ebanean.

Aldatz-gora egin jakon benetan giro onetan mezea astea, baiña asi eban. Berbaldia asteko ordua etorri jakonean, gitxi gora-bera auxe esan eban:

"Anai-arreba maiteak: Mai Santuaren inguruan alkartu gara, ez guztiok bardiñak garalako, geure eritxietan beintzat, guztiok alkarrai itzaltasun bat zor dautsagulako baiño. Eta itzaltasun au agertzen ez dogun artean ez gara mezea egiteko gai. Ondo dakit, zuetariko askok, geienak bear ba'da, ikurri'au ez dozuela onartzen eta zuen kristiñautzarako iñork ezin leiketuzue, bearrezko gauza lez, omartzea ezarri. Orregaitik, erabagi bat artu dot: Ikurri'au kanpora ateraten ez dan artean ezin geinke mezarik egin".

Ixiltasun ikaragarri bat egin zan eleizan. Alberto'k oraindiño esan eban: "Barrero diñotzuet: Ikurrin au eleizatik ateraten ez ba'da, ez da egingo mezarik".

Eta ikurriña iñork ateraten ez eban lez, Alberto'k itzi eban altarea eta urte aretako jaiak meza barik egin ziran.

Eta, jakifia, arik egun batzutara Gotzaiñaren eskutiñza:

"Abade maitea: Ire erriko alkatea etorri jatak eta eleizatik kanpora bota dokela, bera eta udaletzeko maikoak, esan jaustak. Gero itaun batzuk egin jautxeazat eta zer edo zer argiago ikusi jozat gauzak. Itzala egin dok gero Alberto! Ik ba dakik zelako zigorra jaukakan ikurriña iraintzeak? Gaiñera esan jaustak bera egonse dokela Jaurleagaz eta oso asarre dagoala au be. Ara: ez jakiat zer eritxiko dautsakan nire gaurko erabagiari, baiña mezedez onartu egik, bakerako bidea dok eta. Gorabera guzti au berton amaitu dagigun, ire uts egite onen zigorra neure ardurapean izteko esan jautxeat eta orretan geratu dot bera be. Orregaitik, urten adi illebeterako eure txadonetik eta illebeteko atsede artu egik. Ille orretan ez egik berbaldirik egin eta mezea esatekotan ixillean esan egik. Nire erabagia gogorra dala uste ba'dok, parkatu egitak, baiñan betetu enik. Neure onespene ematen duat eta euk eura dekan ante Agur".

Eskutitz au artu ebanean, Alberto berotu egin zan eta lenengoz bere Gotzainaren aurkako bultzakada aundi bat asmatu eban bere barruan. Bere itaunak oneiek ziran: Zelako artzaingoa daroa orrek? Zelan Erria otseintzen dau? Ez eta darabil bildurrak? Ez ete dau zuzentasuna zapaltzen? Eta nik zapaltze orretan lagun egingo ete dautsot? Ez.Ez. Milla bidar ez!

Erria Alberto'ren alde egoan. Guztiak esaten eben eleizan ez dala ezelako ikurrik bear, guztien etxea zala ta.

Baiña Alberto'k samintasun ikaragarri bat eukan bere barruan, eta samintasun orren iturria Gotzaiña ezin onartu uzatea zan.

Bein eta barriro burua makurtu eban eta atsedeen-aldia artzera joan zan..

Baiña San Andres, urtero, utsik emon barik, bere egunean etorten zan eta urrengo urtea txarragoa izan zan. Larogei ertzain euren izkilluakaz etorri ziran errira eta Alberto'ri Gotzaiñak egindako eskutitz bat ekarri eutsen:

"Abade meitea: Bakearen alde jokatu bear joguk eta jokatze onek neke asko igaro-bearra jakarskuk. Ire erri orretan oso gaitxa dok bakea. Erriko jaientan urten adi mezedez eure txadonetik. Kanpoko abade bat joango dok mezea esatera eta itzi egiok neure aginduz joak eta. Uste joat, abade zintzoa ta ona azener nire erabagi au bakerako bearrezko lez artuko dokela. Ire Gotzainaren onespena ta agurrik onena artu egizak, Agur."

Erbesteko abadea ekarri eben ertzaiñak eta meza baragarri bat esan zan: Abadea, erriko agintariak, erriko epaikaria ta bere emaztea entzule. Eta erri osoa, eleizan sartu barik, eleizpean geratu zan.

Urrengo urtean gauzak obeto konpondu ziran. Gotzain Jaunak, erriaren egikera jatorra ikusirik, agintariai eleizara joatea debekatu eutsen eta ez zire joan. Bakez mezea egin gendun.

....

Baiña Alberto ez egoan bakarrik. Abade asko ziran Eleizeak Euskalerrian egin ditun triskantzak onartzen ez ebezanak.

Eta jokabide oker orrek azkenengo urte oneitan agertzen ebazan bere ondorenik azpergarrienak.

Berbak alperrekoak ziran eta egiteetara sartu ziran abadeak.

Agustu baten izan zan. Gotzaiñaren egite nabarmenak iñoz baiño agiriago egon an; Ertzaiñakaz bat eginda; abadeak arata ona, alde batetik bestera, katuak saguak erabilten ditun antzera, erabilten eta beti etsaiari jaramon egiñaz, euskereari inarra kendu eta erderaz berbaldiak eragiten... Eta, au txarrena, goitik datorkozan erabagiak be bete eziñik.

Egun baten, Alberto'k, bere urte-eguna zan eta, abade-gaien etxera ikustaldi bat egin eban. Eta antxe aurkitu eban Gotzaiña bere lagun kutun bategaz.

-Egunon, Alberto! Zelan dabil gure euskaldunik aundiena?

-Ondo, Jauna! Ementxe ba, neure urte-eguna dala emen daukadazen lagunak ikusera etorrita!

-Gaur daukazuz urteak orduan?

-Bai, Jauna.

-Eta zenbat? Zenbat!

-Ogei ta amabira eldu naz.

-Ai ene! Oraindiño gaztea zara. Zenbat gauza ikusi bearako dozuzan mundu onean! Baiña beste Eleiz-Batzar (Kontzilio) bat ez dozu ikusiko. Orixe ez!

-Zergaitik ez, Gotzain jauna?

-Eleiz-Batzar Nagusi au ez dakit nik Espiritu Santuak zelan itzi dauan egiten! Baiña olakorik barrero ez da jazoko Eleizan. Orixe ez! Ba daukaz Eleizeak beste alde garbiago batzuk bere irakatsiak agertzeko.

Gotzaiñaren berba orreike entzunaz, zutz eginda geratu zan Alberto. Ez eban ete Gotzain baten Eleiza osoagan ain uste gitxi izan legikenik. Bera oso eleiz-zalea zan eta olako gotzaiñak tamal negargarria emoten eutsan.

Ori alde batetik, eta ikusten ziran egite lotsagarriak bestetik, abade talde bat adoretu eben eta bide gogorra artu eben.

Lenengo ogei ta amar abade sartu ziran aguztu aretan Goterkiko lan-gelatarara eta antxe egon ziran bederatzi egunean.

Laster asi ziran izpar-ingiak iñon diranak esaten euren aurka: Eleizearen batzuna apurtu ebela, aurkalariak zirala, siniste okerrekoak zirala, politikan sartzen zirala ta olakoak.

Alberto'k bere lagun bategaz osterera luze bat egin eban: Madrid'era joan zana Aita Santua'ren ordezkariagaz berba egiteko.

Arratsaldeko illun-nabarraz batera eldu ziran.

Ertzain bi egozan ateak zaintzen eta Ordezkarri jauna etxean ete egoan itaundu eutsen. Ezetza entzunda, aurreko kalean geratu ziran itxaroten. Laster agertu zan Ordezkarri edo Nuntziario jauna bere berebil ederrean. Barrero itaundu eutsen ateko ertzañai, eta artu eben erantzuna auxe izan zan: "Gaur nekatuta dagoala, eta biar amarretarako etorteko diño".

Urrengo agunean amarretan joan ziran eta amabiak arte itxaron ondoren, biotz onez artu zituan: "Zuei ainbeste itxaron azo dautzuedalako seminduta nago! Parkatu! Baiña ezin izan zaituet lenago artu".

Akar-izketa ederra izan eben, baiña guzak zuzentzeko ainbat lastarren urte-teko agindu eutsen.

Aguztuko egotaldi ori naikoa arin amaitu zan, baiña laster gertatu eben bes-egotaldi luzeago bat. Au Ba Abade-gaien etxean izan zan eta ogeta zortzi egun egin ebezan an.

Agiri edar eta luze bat atera eben, Euskalerrriaren aurka, Eleizearen aldetik egin diran okerkeriak agertuez. Okerbide bakoitxa jazoeraz erakusten zan. Eta azkenean eskari bat: Eleizeak gure Erria erri lez onartu dagiala eta orretarako esaugarri lez, Gotzain Euskaldunen Batzordea sortu dagiala.

Agiri ori eroateko ta gure larri-une mingotsa agertzeko, Erroma'ra bialdu ebezan ordezkari bi, Aita Santua bera gura eben jakitun ipiñi.

Baiña Aita Santuagana eltzea ez zan erreza. Bere idazkariaren idazkaria-z berba egitea be ez zan gitxi. Edozelan be, agiria eldu zan Eleizako buru zana-

ren ikas-mairaiño.

Erantzunik artu ete eban?

Berbaz ez, baiña egitez bai zer edo zer.

Egun areitan Gotzaiña il zan eta ordu bi igaro baiño lenago, Gotzain-orde barria izendatuta egoan. Sarri ez da ikusten olako bizkortasunik jauregietan!

Zelakoa zan Gotzain-orde barria?

Lengoa baiño ohea bai. Ez zan gauza gátxa a baiño ohea aurkitzea. Baiña bear zan maillara eltzeko asko falta eban. Tamalgarria izaten da bide zuzenak bi-llatu bear diranean, abadeak aurretik eta Gotzaiña atzetik ibilli bearra! Ez ete da Gotzaiña ardien aurretik joan bear dauan artzaiña?

....

EKINTZAILLEAK

Baiña gure Alberto'ren egunik mingotsenak etorteko egozan.

Euskal-ekintzailleak entzun eben bere eginbide zuzena ta adoretua eta egun baten lau gazte bere etxera etorri jakozan.

-Egunon, Jauna!

-Egunon, gazteak. Zer gura dozue?

-Zugaz barba egin gura geunke, baiña astutsu.

-Ederto. Zatoze neure gelara.

-Euskal ekintzailleak gara, Alberto. Entzun dogu zu be Euskalerriarren alde lan egiteko gertu zagozala.

-Orixe bai. Baiña zuen bideak eta nireak, bear ba'da, bardiñak ez dira izango.

-Berbaz alkar ulertuko dogu eta batera egin al doguna, batera egingo dogu; batera ezin ibilli garanean, bakoitxak bere bidea artuko dogu.

-Zer gura dozue zuek Euskalerria'rentzat?

-Azkatasuna, ondasun-banaketa zuzena sozialismoaren bidetik, eta erri-agintaritza jatorra.

-Orretan zuekaz batera nago. Eta erlejiñorik?

-Geuk kristautasuna onartzen dogu, baiña ez agintezkoa, Erriarena ta azkatasunez artzen dana baiño. Au zuen arazo berezia dozue. Guk geure egiteak gizontasunak eskatzen dauan lez egingo doguz eta gura dauana kristiñau izango da. Eleizea, jatorra ba'da, Erriarentzat laguntasuna dala uste dogu.

-Orretan be zuekaz batera nago. Eta orretarako bideak?

-Gu bide gogorretik goaz, bigunkeriz ezer ezin legikela ikusi dogu ta. Gure Erriaren aurka datorren gogorkeriari gogortasunaz erantzungo dautsogu.

-Eta gogortasun ori noraiño eroango zeunkee?

-Bear dan maillaraiño.

-Eta Kristo'ren irakatsiak kontuan arturik?

-Bai. Kristo'k benetako iraultza egin eban munduan eta ez dogu uste bere irakatsiak gaurko iraultza egiteko eragozpen izan leitekezenik,

-Elburu erreik lortzeko gudea be egingo zeunkee?

-Beste biderik ez ba'dago eta bide orretatik itxaropena ba'lego, bai. Obeto esateko, lengo gudea amaitu barik dagoala uste dogu.

-Ondo dago. Zuekaz nago.

Alkar-izketa labur eta mamintsu au amaitu ondoren, alkarrari eskua emon outsoen, eta ekintzaille-taldea, abade ta guzti, osotu zan arratsalde aretan.

...

Urte batzuk igaro ziran, eta Alberto'ren etxean beste alkar-izketa au izan zan:

-Txakurra& gogor asi dozak gero.!

-Bai. Geuk be geure gogortasuna goragoko mailla batera eroan bear joguk.

-Atzo urte^N jua txakurren artetik Imanol'ek: Entzumena galduta, begi bat kenduta, aita izateko almen&ik barik eta sinistu eziñeko oiñazeak igarota. Eta onen antzera beste ekintzaille asko be artu juezak. Oneik txakur lotsabakooki!..! Eta guk zer egiten joguk?

-Perales ertzain-burua izan ei dok guzti orrein arduradun nagusia. Lotsabakoa alakoa! Oneri be^{WA}ntzat gogortasunez erantzun egoki bat emon bear jau-txaguk...!

-Bai orixe. Zer egin leikiok!

-Ori baiño mak&ña bat obeak diran gizonak ilten juezak bazterretan!

-Iltea & lar ez dok izango gero?

-Lar diñok? Ba jaukok biziteko eskubiderik orren lako gizonak? Eta il bearrekoa ba'dok, norik ilgo jok? Epaikari baten epaia artuta gero? Ez dozak ba epaikariak, bere antzekoak eta bere lagunak?

-Bai, Ori be egia dok.

-Urrengo gure ekintza, Perales iltea izango dok.

Orduan Alberto'k, bere eritxia emon eban:

-Perales'en zuzengekeriak iñork ezin leikezak onartu eta epaillu zuzen batek eriotzarako epaia emon leikiok. Baiña nire ustez, il ez dok iñor egin bear. Zergitik ez oratu gizon oneri eta bakar-leku batera eroan. An bere lekua

izteko berbea emon jaikala eta, oiñazerik emon barik, aize itzi. Gero ikusiko joguek zelakoa doken.

Baiña Alberto'ren berbak ez ziran onartu batzar aretan. Gazte arein odola bero egoan. Arik egun gitxira, bere etxean il eben Perales Ertzain-burua.

...

Ekintza barriak artzeko beste batzar bat egin eben gero. Obeto esanda, egiteko ustea eben. Baiña eurak baiño lenago, batzar lekuan ertzaiñak egozan. Sartu orduko, tiroka artu ebezan eta batzuk zauritu be bai, beste batzuk lotu, ertzain-etxera eroan eta gero espetxean sartu ebezan.

Ertzain-etxea amabost eguneeuuki ebezan eta an igaro bear izan ebezan oiñazeak ikaragarriak izan ziran.

Gure Alberto'k be artzekoak artu zituan.

Urteagarrenean epaitu ebezan eta taldeko lau gzeri eriotzarako epaipena ezarri eutseen. Alberto'ri, ostera, ogei ta amar urterako espetxea.

Au be ba zan gure sendiarentzat oiñazea! Aitak ainbeste urte egin eta laster semea sartu!

Ain oben astuna ete da norberaren Erria maite izatea? Ala ain zuzengabeak eta okerrak ete gara gu gizonok!

....

I I I

S A B I N
=====

E T A
=====

A M A I A
=====

B A S E R R I A N
=====

ARTAJORRAN ETA BERBETAN

Landabarri-gaiñeko soloan arta-jorran dabiltz.

Arto-landarak: guri-guri datorz, baiña baita arto-arteko bedarrak be.

Egualdia oso ederra da: sortaldean eguzki zuria, aize bigun-biguna, usain gozoa alde guztietatik, margolaririk onenak ezin margotu legiken ikuspegi ederra aurrean.

Sabiñ gaztea, atxurra eskuetan daukala: gordin, barrekari, ametsez beterik.

Bere ondoan Amaia andra gaztea: oso polita eta biotz-biguna; bere ule gorriak idunetik bera, bere begiak urdiñak eta zerua lakoak, bere ezpanak ondo neurtuak, bere garria estua, bere berna ta belauak oso egokiak... gorputz osoa bere gizonaren atseginerako egiñekoa lako.

Amaia alai zan, arrokeri bakoa, nekeak artzeko sendoa, iñor mindu eziñekoa, maitekorra ta biotz-biguna.

Arta-jorran ekiñez, Sabin^{ek} eta Amaiak alkar-izketa pozgarriak erabil^{en} ebezan eta baserriaren gerorako eginbideak aukeratzen ebezan:

-Baserriko bizitzea, gogorra da Amaia. Ez deritxazu?

-Bai, Sabin, baiña biok batera eta maitasunez nekeak eroaten ba^{doguz}... bizitza au arindu egiten da. Ni pozik bizi naz, Sabin. Zu ez?

-Zeu zara naikoa nire bizitzea poztuteko, Amaia. Zure ondoan lana ez da neke. Gaiñera, baserria aukeratu genduanean, ba genkian zelakoa zan.

-Beste alde batetik, gure lanaren frutua gizonen janari dala gogoratuteak be poztu egiten dau. Eta... Nor^{duko} guk baiño urrago Zeruko Aita? Ez dago Bera gure abereetan, gure landaretan, gure soloetan...?

-Bai. Egi^z pozgarria ori. Eta Bera dago baita gure alkar-maitetasunean eta Bera egongo da gure seme-alabetan be.

-Benetan gero! Zergaitik Jaungoikoari eskerrak emon daukagu Berak emon daukun egin-bear pozgarriagaitik!

.....

Bigarren semea dogu Sabin. Eta bere emazte on eta polita nire erraiña da: maitasunez eta biotz onez beteriko andra gaztea.

Eguerdi ostean etorri dira solotik etxera eta, neure gizonagaz batera, lau rok, bazkaldu dogu, beti lez, Jainko Aitari otoitz egin ondoren.

Gure basetxea naikoa aundia da, baiña Sabin ezkontzeko gertatu zanean, arazo sakon bat agertu jakun. Geu oraindifo zar-zarrak ez, lan egiteko sasoiari beñtzat. Ezkon-barriak be bizi-leku eta lan-leku izango jaken abi bat bear. Zer egin?

-I, Sabin, zer egin geinkela uste dok?

-Zeuk artu bear zeunke erabagia, aita. Gai onetan nik baiño geiago dakizu. Amaia ezaguñzen dozu eta aregaz ez da goraberarik izango.

-Baserria erdi-bana artuko joguk? Ala etxe erdia gitxi dakela uste dok?

-Ba leiteke gitxitxu izatea, aita, Baiña guztiok bizi bear dogu eta guk, gazteak be ba gara ta, bide barriak billatuko doguz, baserri-barruan bear ba'da.

-Eu orretara ba'ago, neure eritxia esango duat. Oraintxegandik euri emongo duat baserri osoa, baiña ama ta biok bizi gozaken artean, geuk erabilliko joguk erdia eta zuek beste erdia. Laurok batera jango joguk, mai baten, eta egiten joguzaken eralgiteak erdibana ordainduko joguzak eta kito. Gero, biotatik bat bakarrik geratzen dokenean, beragaz batzan biziko zaree.

-Aita! Eta beste anai-arrebai zer?

-Euren ikasteak be egin jabezak eta orretan diru asko eralgi joguk. Orain ba jaukek nondik bizi. Gaiñera, baserria iretzat izan ezkerñ, diru apur bat be geratzen dok eta au eurentzat izango lexekek.

-Esan egiezu eurai be aita, gero. Ori dala ta, ez neuke gura ezelako asarririk.

-Bai esango jautxeat, baiña ez egik bildurrik izan. Iñoz aitatu joguk gai au eta ez juat uste ezelako nasterik izango dokenik.

....

BIDE BARRIAK.

Ezkon-aurreko egun baten, domeka arratsaldean, Sabin eta Amaia ibiltaldi bat egiteko alkartu ziran.

-Zu, Amaia! Atzo aitagaz alkar-izketa garrantzizko bat izan neban.

-Orren garrantzi aundikoa?

-Bai. Ezkontzen garanerako gure baserri bizitzea zelan izan daitekean.

-Eta zer erabagi zanduen?

-Eurak biak bizi diran artean baserria erdibana, batera bizi, janaren eralgiteak erdibana ordaindu eta bietatik bat doanean, dana batzan.

-Eta beste anaiak, Sabin?

-Ori be kontuan izan gendun. Zer deritxazu?

-Erdibana daukagon artean estutxu ibilliko gara, baiña artuko doguz bideak.

-Lantegi baten lanean neu sartzeari zer deritxazu, Amaia?

-Egia esan, ez jat atsegin. Gure bidea baserria dalakoan nago.

-Zer egingo dogu orduan?

-Zergaitik ez oillotegi bat? Edo ortuariak? Edo korta barri bat? Bide ^{degoz} asko baserrietik urten barik, Sabin!

-Egia da. Betirako baserrian eta betirako alkarragaz. Ez da Amaia? Gaur mosutxu bat, Amaia? Laster senar-emazte izango gara, oso-osoa alkarrenak izango gara eta Jaungoikoak bere ~~alkartasunaz~~ maitetasunaz alkartuko gaitu.

-Gure maitetasunaren lenengo erakutsi au, maitetasun elduaren ezaugarri bat da.

+Domeka arratsaldea pozik alkarragaz igaro ondoren, etxeratu ziran ametsaz beterik.

....

BATXI'REN ERIOTZEA.

Gure Batxi urteetan be aurrera joian, gizendu be larregi egin zan eta bere osasuna geroago ta makalagoa zan.

Betirako ez garala etorri gogoraturik, gure bizia Aitaren eskuetan geunkan eta bere deiari itxaroten gengoan.

Arratsalde argi baten, goiko~~l~~ soloan bedar-ebagiten genbiltzala, -barruko larritasun aundi bat asmetan dot, -esan eustan.

-Neuk eroango dodaz astoa ta kodaiña ta zoaz aurretik etxera-esan neuntsa. Eta alantxe egin eban. Etxera eldutakoan ogeratu zan.

-Astokadea utsitu, eta joan nintzan zelan egoan itaunka. Zelako samintasuna artu neban! Batxi ilda egoan.

Sabin'eri ta Amaia^{→ leitu neuntsen eta}ri, osagillea ekarri eban... baiña alperrik! Odol-aldi bat izan ei zan... Aitagana joan zan.

Tamalgarría, benetan, agurrik egin barik eta eleizakoak artu barik joan bearra... baiña Jaunak berak daki zelan gauzak egiten ditun, "egin bedi bere naia zeruan bezela lurrean be".

Alberto'k be espetxean jakin eban aitaren eriotzearen barria. Samintasun aundia artu eban, baiña bera sendoa da eta ikara aundirik be ez eutsan eragin barri onek.

Illetarako beste etxeko ta senitarteko guztiak alkartu giñan. Alberto'ren adiskideak batek egin eban berbaldia. Aiztu eziñekoa, benetan! "Batxi! Euskaldun guztiak zure antzekoak ba'giña, Andaluzián bertan be euskera egingo leiteke!"

Bakar gelditu nintzan!

Baiña neure seme taalaba-barriak poztuten eban nire bizitzea. Baita lobatxuaK be.

Neuk be, bai lobai eta bai ezkondu gazteai be, al ~~doda~~ neban guztia languntzen neuntsen.

.....

BASERRI-ARAZOA.

Baserria beti izan da, eta izango be bai, gizarteko bizi-biderik bekoena: jakintza barik, aurrerapide barik, lan gogorra, tramankulu atzeratuak, zerga astuak, biziteko eratasunik-eza, etxea bera abi beroa ez da izaten beti, pisti-artean ibilteak horbera be apur bat pistitu egiten dau, lan asko loiak diran ezker ezin beti garbirik ibilli, geienetan bakartasuna, errirako bide txarrak sarri, eskoletan ganorabako irakaleak geienetan, gu euskaldunak izan eta kaletarrak maketotuta eta arrotuta...

Baiña baserria andreakentzat izaten da txarrena: etxeko ta kanpoko lanak egin bear, gizonak urten-bearren bat daukanean, gizon-bearrak be norberaren kontura, umeen ardurea, zarrak emoten daben egin-bearra, saltokira joan-bearra, etxekoen soñekoak konpondu-bearra...

Baserriko andrak bai benetan lanpetuta, lanez itota bizi dira!

Eta gero kalean dagozan eratasun guztiak uts egin!

Orregaitik, baserriak utsik geratuez daz toki guztietan.

Etxedun diran mutil gazteak ez dabe emaztegaririk aurkitzen, mutilzar geratzen dira. Eta zorionez euren erako neskaren bat aurkitzen ba dabe, maitasuna agertu ordukoxe, etorten da eskari au: Baserria piñu sartu eta kalean bizi-leku bat artu bear dugu. Ez dagoz baserria iztera, ez, baserria geurea, baiña ez bertan biziteko, ez an lan agiteko. Neska gazteak, barriz, kaletar antza txikitarik artzen dabe eta ez dago iñor baserrirako.

Nik sarritan neure buruari itanduten dautset: Zergaitik ete da ori? Jaungoikoak baserri-deia emon ba dausku, eta gizarteak baserritarra bear ba ditu, zergaitik dei oneri erantzun ez? Dei gatxa dala? Baiña baita bearrezkoa be. Arazoak bertanbera itziaz ez da ezer egiten, ez erantzun ona emoten.

Gure Sabin`ek zori ona izan eban: bera baserri-zalpa berez eta Amaia bere netako andra-gezte baserritarra. Ez gero biak be lenagoko eran bizitekoak, baserri-zaleak eta, batez be, alkar-maitale zintzoak, beroak eta bigunak. Baserriak datun akatz guztien artean, eurak zoriontsuak ziran.

Diru-aldeetik, urri ba ebiltzan be egunak dakarzan eretan ez ain txarto:

Domeka-arratsaldeetan zinera edo jolas-tokietan, bari^ukuetan azokara biak ortuariak eta, saltzeko. domeka-goizetan Sabin sarri abere-azokara; inguruan jai ospetsurik ba'zan, ez eben utsik egiten; udaldian, osterara luzeren bat egiten eben... bet^o ondo jantzita; orretarako Amaia begi onekoa zan izan be; ~~eta~~ auto txiki bat be be ba euken. Eta, au be egia da, eurak kanpotik ziran artean, umeak zaintzeko ta bear-bearrezko gauzak egiteko amama zarra! Eta pozik nengoa neu be neure etxean baserritarrak pozik ikusirik.

...

Baiña baserriaren geroa oso illun ikusten da .

Antxiñako denporetan, gure baserrien ondoan olak egozan.

Olagizon adoretuak eta erlejiñotsuak euretan lan egiten eben. Olandrea, andra ospetsua be iñoz izaten zan. Baiña onein lana gitxituez joian. Ortik sortu zan esakuna zam bat: Olagizonak eta errementariak, praktaxu zarrak eta begiak gorriak".

Gero laba aundiak agertu ziran eta gure olatxuak ezerezera etorri ziran.

Baterako, oiñarri txar bat be ba'euken: ola orreitarako bear zan burdiñe-
-gaia, al zan eran, Somorrostro'tik eta, ekarten zan.

Ez ete da bardik jazoko gure baserriai, edo, obeto esanda, gure basetxeai buruz?

Zelan izan daiteke jazoera bildurgarri au: Gure baserririk daroaguzen ortuariak baiña merkeagoak Balentzia'tik etorriak izatea? Edo gu ez gara gauza edo diabrukeriren bat dabil or barruan. Ba diñoe laterritik ara lagontza gelago doala eta ba leiteke.

-I, Sabin, urazak eroan joazat gaur salgai eta etorri dok Castellon'goak kamioi aundi bat urazaz beterik eta nik ezin salgu izan joazat!

-Ireak txarragoak izango zoazan!

-Ez, obeak zoazan, baiña, Castellon'goak oso merkeak. Arein salneurrian saldu ezkeru, nik biderako be ez joat egiten!

-Nauri be lengoan antzekoa jazo jatan, Sagarrak eroan nijuazan saltokira

eta Albacete`tik etorrikoak, nireak baiña merkeagoak zoazen eta ez ain txarrak be gero! Nireak apur bat biziagoak agorago, baiña angoak be urtsuak eta gozoak, apur bat gazeagoak ba` zoazan be.

-Zelako diabrukeriak egiten juezak orreik maketook, Sabin, ain merke gauzak ekarteko?

-Eta konturatu egik bideak jaten jokena!

-Ori ba, Sabin, ori jiñoat nik be!

-Ba jiñoek, gero, Madril`dik laguntza asko artzen juekela be!

-Ez, Sabin, ez. Kanpoko laguntza dala ta, ez dok ori argitzen, beste bideren bat egongo dok.

-Neu be orretan najagok. Eta ba dakik nik zer uste joaten? Gu galtzen gaitu-
na alkartasunik eza dokela. Lau uraza sartzen joguzak solo mustur baten eta eurak zaintzen amaika alperreko ordu igaroten joguk! Edo solo-mána baten iru edo lau eagar-landara ipinjen joguzak, eta bardin...

-Ori be izan leitekek, baiña entzun egidak, Sabin. Nire lagun batek lengo ur-
te baten soloa ondo gertatu eta eun milla uraza sartu juazan. Baiña gero saldu ezin eta urazak loratu zoazan eta lorapetik-lorape txakurrak ibiltzen zoazan eta eurak be loratuta urteten zoazen uraza artetok.

-Ba jagok or arrisku bat. Baiña gure lana buruaz egin bear joguk eta salto-
kiak eta azokak be arduraz billatu. Ez dok ikasten Albacete`tik eta Castellon`dik noreiño etortzen dozaken? Eta ez bakarrik ortuariak buruz eta landara emoilleani buruz, abere-gaietan, soloarietan, egaztietan... danean, buru argiaz lan egiten ez ba` joguk, galduak gozak baserritarrak.

-I, baiña ba dozak, gero, gure baserriak egokiak orrelan lan egiteko?

-Nik uste joatenez, bai. Baiña alkartu egin bear gozak. Ori dok gaitxa gutzat!

-Bear-izanak eragiten ba` joskuk gero! Bear ba`da Sabin...

-Zergaitik ez gozak asten orduan?

-Ni orretarako prest najagok.

-Ni be bai. Eta uste joat bertoko inguruan amar bat batuko gozakela.

-Ik esan egiek batzui. Nik be al joatan bestegaz berba egingo joat eta

domekan, eguerdian, erriko ardadegian batuko gozak.

-Ederto, Sabin! Ia zer edo zer egiten joguken.

.....

ALKARTZEA.

Sabin'ek auzoko gizon gazte bategaz izan eban alkar-izketa au inguruko baserrien barriztatze baten sorrerea izan zan.

Urrengo domekan, eguerdian, alkartu ziran lenengoz. Amabost baserri-tako gizonak ziran. Gora-bera aundiak izan ebezan eta berba lar egin eben. Oiturarik eza edo..., baiña zorioneko baserri-alkartea antxe sortu zan.

Lenengo ta bein, batera lan egiteko gertu egozan ezker, baserri arteko munarri guztiak kendu ebezan eta baserri batzuk zer edo zer txikiagoak izan arren guztiak alkartean sartu ziran bardintasunez, Norberekeri guztiak alde batera itzi ebezan. Gure denporetan au eziña zan. Nora orduan geunkan beste bekaitz, gorroto, alkarren bildur, lotsa, sapokeri ta beste egikera gaiztoakaz? Gaurko gazteak zabalagoak dira eta orretara jarten ba'dira, baserria aurrera aterako dabe.

Lengo arira joan da, munarri guztiak kendu ondoren, lurrak barriro zatitu ebezan: Mendi-gaifneak eta aldapak piñuz bete ebezan; aldapa aundirik ez euken soloak edo lurra ain ona ez eukenak, lurra ondo aztertuta geru, lantzar eta bedarleku itzi ebezah, baiña trebetasun aundiz gertatuta gero. Amabost baserrien artean ba egozan leun-aldi ederrak be. Len, zatitan egozanean ez ziran ezer, baiña dana bat egin zanean, zelako solo sailleak urten ziran! Saila oneik, erdiz-erdi inguru, ortuarietarako eta soloarietarako izan ziran.

Guztien diruak pillatu eta tramankulu barriak erosi ebezah lanerako eta korta barri bat, oillotegi barri bat, bedar-zuloak... eta olakoak egin ebezan.

Andrak eta umeak soloetan lan egitea debekatuta egoan. Etxe-inguruan, ori bai, ortutxu bat eta etxe-pizti batzuk euki eikeezan.

Gizonak guztiak euken bakoitxak bere lan-saillea: edo oillotegian, edo kortan, edo ortuan, edo soloan... Iñork bear-izan berezirik ba'eukan, alkarrari lagunduten eutsoen; eta udaldian, txandaka, bakoitxak amabost egun atseden-aldirako artzen ebezan.

Guztiak kristiñau nakoak zintzoak ziran lez, lanbide barri onek euren kristiñaditza barriztau egin eben:norberekeria kendu,alkar maitasuna geitu,alkar laguntza ugaritu,biotzak zabaldu...Domeketako ebanjelioak beti eukan euren-tzat esangura barri bat.

Ateraten ete eben geiago? Erreza ete zan saltzea?

Irabazteak bardiñak izanda be,pozik artu leikean lanbide barri au.Nasai-agoa zan,gizonkiro lan egiten zan eta aurrerapiderako bide bat zan.

Irabazte-bidean be,orregaitiñq,zur jokatu be egin eben eta,apurka-apurka,eralgitako ditutzak eskuratu ebezan eta gero be polito joiazan.

Noizean bein barriztatu-bearrak diru asko emon eragiten eutsen eta itundu egiten ziran.Baita abereen gaisoak¹diak,lurraren legor-aldiak eta orrei-lako galtzeak be ba ziran.Baiña bakarrik dabillanarentzat be izaten dira.

Gure Sabin'ek kortearen ardurea artu eban.

Errezen lan egiteko eran ipiñi eben korta au.Berrogei esne-bei eta beste berrogei txal eukazan.Lanik geiena berak egiten eban,baiña ez egoan laguntza barik.

Egunean zortzi bat ordu lanean egin ondoren,nekatu^{ka} baiña pozik etorten zan etxera.

-Gabon,Amaia!Ondo igaro dozu eguna?

-Ederto! Andrentzako bizibide au bestalakoa da!

-Aspaldion gaztetu ta edertu egin zara gero,Amaia!

+ Oba ez! Erregiña baten antzera bizi naz ta! Zeu be txarrago ez zabilte ez da?

-Lan sendo egin bear,Amaia,baiña ori berezko legea dogu,Edozelan be gure lanak len baiño geiago emoten dausku.Gaiñera lengo aldean beste alkar-tasun bat eta beste giro bat ikusten dogu gure artean.

-Eta gelditu egin zaree ala oraindiño be aurrera zoaze?

-Beti agertzen da bear-izan barriren bat.Lasteñudea be ba datorrela ta,legor-aldiaren bildurrez gagoz.Legor-aldiak,abereak janaritatea gaitxago

buntzen dausku, eta orretan baiño kalte geiago ortuan egiten dausku. Errekea bantau daukagula gairera!

Oraintxe gabiltz uraska aundi bat egin eta urbidez, batez be leun-aldia ugaituteko amesean. Asko kostako da baiña uste dogunez kostu orreik lurrak geigarri emongo dauanaz laster bardinduko dira. Lantzarretarako ta bedar-lekue- tarako be mezedagarri izango da gairera.

-Eta zuen urazak Castellon'goak baiño merkeagoak izaten dira?

-Gaur be bai, Amaia! Merkeagoak eta obeak. Batez be uri aundietan asko eta naikoa ondo saltzen dogu

-Eta garaun-landarak? Oi dan lez emoten dautzue? Ala Albacete'ko sagra- rrak obeto saltzen ete dira?

-Ez. Orretan be geiago egin dautsegu: sagarrak, kerizak, okeranak, madariak, ikoak, millekotak... era askotako landarak sartu doguz. Batzuk asi dira garaunak smoten, baiña oraindiño emote osoan gitxi dagoz. Edozelan be garaun-landarak lanik gitxien emoten dauskuenak dira, eta denporaz diru-bide ona izango dirala uste dogu. Lur asko daukagunez, danera eldu geintekoz.

-Pozik orduan, ez?

-Bai orixe! Baiña itzi dagiguzan lan-kontuak alde batera. Jateko zer daukazu?

-Gaur betiko ^{er} gitxi gorabera. Baiña biarko etxeko untxi eder bat il dot. Domekea be ba da ta... Amak ez dau gura izan ilterik. Tamala artu dau. Baiña orre- tarako dira oneik. Ze demonentru!

....

ESNE-ARAZOA

Gizarteag beti dira iñoren izerdiz bizi gura dabenak. Eta zenbat baserritar gizañoren lepotik bizi eta aberastu gura dabenak!

Orregaitiño, baserritarrai kalte egiten dautseen asko, bere alde dagozala- koan agertzen dira. Alkarte aundiak egin, esne-batze sinistu-eziñekoak... eta gero eurak aberastu ta baserritarra oinperatu.

Esne-batzen etxe ederrak ikusten eroaten ditue baserritarrai eta ago be-

tean esaten dautse: "Au guztia zeuena dozue". Peitzu-ola ederra erakutsi eta "au be zeuena jatzue" entzuten dabe. Baiña esnearen salneurria geroago ta berago. Nora goaz bide orretatik?

Arazo au antxiñatik ebillen bere barruan gure Sabin'ek eta egun baten onelan berba egin eban alkartean:

-Gure alkartea polito doa eta pozik gagoz, baiña neure barruan daroadan kezka bat agertu bear dautzuet gaur: Beste gauza guztiakaz irabazten dogu, baiña esneagaz galdu. Esneak daukan salneurrian, esku-lanak ordaintzeko be ez dogu ateraten. Egia da, esnea lenengo maillako janaria dana, egia da ainbeste txirok ortik bizia daukena, egia da baserritarraren lanak emoten dauan ondorena, berehago salneurrian euki bear dana. Baiña itaun bat egingo dautzuet: Ondo deritxazue gure izerdiaz bitartekoak aberastuteari, geuk geure kostuak ordainduteko ez daukagun artean? Ez dozue² ikustea esne-batzailleak aberastuta eta baserritarrak iruzurtuta?

-Bai. Ori egia dok, erantzun eutsoen. Baiña zer egin geinkek?

-Asmau bearko goguk zer egin. Baiña nei ez noa lanik alperrik egiten!

-Ik, zer egin leikekela uste dok?

-Nik, lenengo ta bein, esne-batzailleari esango neunskiok: "Esnea, neurriko pezeta bat geiago ordaintzen ez ba'dozue, ori lortzeko bide batzuk artu bearko doguz". Jaramonik egiten ez ba'dausku, beste batzer baten asmauko dogu urrengo oinkadea zein izango dan.

Sabin'ek berak berba egin eban esne-batzailleagaz eta onen erantzuna auxer izan zan:

-Niri zer diñostek, mutil! Ugazabari esan egiok!

-I, ni baiño lenago, egongo az ugazabagaz, bai, eta mezedez esan egiok. Ez gabiltzak olgetan, gero!

-Tirok ba, nik esango jautxeat. Biarko ekarriko duat erantzuna.

...

-Ugazabak esan jaustak, berak ez daukala ipinten salneurria, Madril'dik etortzen dala izentauta eta berak ezin leikekela ezer egin.

+Esan egiok ugazabari, salneurri ohea lortzeko geure bideak artuko goguzakela. Besterik ezer be ez. Baiña ez adi aitzu gero! Garrantzi aundiko gauzea dok etal

-Bai, bai; nik esango jautxeat. Baiña... alperrik...

...

Barrero alkartu ziran baserri-alkarteko amabost gizonak. Sabin'ek emondako oinkadearen barria emon eban.

-Esan nijuan nik, alperreko pausoa zoala. Ez jóguk ezer be lortu!

-Oraindiño ez. Baiña lortuko jóguk.

-Orain zer egin geikkek ba?

-Lenengo ta bein, beste esne-saltzailleakaz bat egin. ~~egin~~.

-Ori benetan diñok? Baserritarrek batu? Iñoz egin dozak ala?

-Otaingoan bai, bear ba'da. Diru-arazoa dok!

Amabostak berbatu ziran beste batzukaz, errian eta erbestean berba egiteko gai oneri buruz. Eta susmo onakaz etorri ziran.

Arik amabostara, esne-saltzailleen batzar bat egin zan. Batzar onetan auxe erabagi zan: Agiri sakon bat, esnearen kostuak eta salneurria agertzeko, zabaldu eta azkenean berba oneixek: "Esnearen salneurria bere neurrian ipinten ez ba'da, lenengo esne-ukoa egingo dogu. Eta ori naikoa ez ba'da, zuzentasunez zor jakuna lortzeko, beste bide batzuk, gogorrakoak, artuko doguz".

...

Zabaldu ba'zan, zabaldu zan agiri ori. Egun beratan etorri jakozan ertzaiñak etxera gure Sabin'eri:

-Orreik esne-saltzailleen agiri iraultzailleok ik zabaldu dozak?

-Ez.

-Nork zabaldu jpezak ba? Nor izan dok gizon kaltegarri ori?

-Ez dago gizonik orreik zabaldu dituanik. Esne saltzaille guztion artean egiña da.

-Eta non batu zaree ba esne-saltzailleok ?

-Noizean bein alkar ikusten dogu.

-Eta nor dok or buru?

-Buru-bakorik iñor ez dago

-Ez egin ketokeririk esan! Entzun dok? Eta bekean ibiltzen ez ba'az, ba dakik zer etorriko jatan!

-Bai.Ondo dago.Agur!

...

Jazoera onek leku guztietan bildurra sartu eban.Ez gitxien baserri-alkartean.Geien orregaitiño Amaia'ren biotzean:

-Kontuz ibilli zaite,Sabin.Diru apur bategaitik garrastuko dogu gure bizitzea?

-Zuzentasuna galtzea ba'da,Amaia,nondik edo andik gure bizitzea garrastuko da.Eta zer? Geure eskubideak zaintzeko gai ez ba'gara,zelango gizonak gara ba?

-Bai.Ori be egia da.Ni gertu nago batera zugaz bear diran nekeak artze-ko,baiña ez ibilli ez-jakiñean gero! Erreik gogorrak dozuz!

-Gure etxean orrein barria ba dakigu,Amaia.Baiña artu dogun bidea ez dot uste txarra danik.Ain gauza argia da gure eskubidea!

Agiri onek leku guztietan bildurra sartu ebala esan dot.Baiña lar esatea da.Esnebatzailleai etaeuren gaiñekoai ezelako bildurrik ez eutsen sartuEuren artean berba egin eben,baiña auxe esanaz amaitu eben:"Zer uste dabe baserri-tar gizajo oneik!

...

Baiña esne-ukoa egin zan.Tarren^kkadaz esnea erre kara bota zan.Erriko enparantzan bertan be tarren^k batzuk utsitu ziran.Baiña geienak gaztaia egin eben.

Uko-aldi onen barria zabaldu eben izpar-ingiak be.Baserritarren aurka egozan geienak.Ori jakifña.Ba dakigu nori salduta dagozan.

Ertzaiñak batera ta bestera ugari ebiltzazan,baiña iñori ez eutsoen oratu

Esne-saltzailleak beste ixilleko batzar bat egin eben.Erdiak inguru bat tu ziran,besteai bildurrak eragin eutsen eta.

Batzar onetan gure Sabin'ek berba egin eban:

"Aste bete dago esnerik sardu barik, eta ikusi dabe sendo gagozela. Baiña oraindiño geure elburua ez dogu lortu. Gugaz barbarik ez dabe egin. Salneurri obarik ez dogu lortu. Lanerako daukaguzan tramankuluak artu eta bide-zabalean ipini dagiguzan, ara ta ona dabiltzan guztiak geldituteko."

-Eta zer lortuko jnguk orrelan?

-Ikusi dagiela guztiak, bat garala eta indarra daukagula!

-Eta ertzaiñak arastorten ba dozak eta jpk aasi? Onduan zer?

-Lepoko batzuk artu arren, eutsi. Eta gogor ba dabiltz, iges egin.

-Tirok ba, tirok ba!

.....

Domeka-eguerdi bat zan. Baserritar asko alkartu ziran bide-zabalean, euren tramankuluakaz. Aurretik joian bat txartel aundi bategez: "ESNEA BAI; BAIÑA ZEGAN?"

Astiro-astiro erriratu ziran, baiña ordu bete inguruan eundak kotxeak batu ziran eta ez eben soñu makala atera!

Erriko enparantzara eldu ziranean, ertzaiñak etorri ziran eta ez eben laster aasi ziran makillaka.

Euren buru zana urreratu jakon Sabin'eri:

-I be emen ago? Ez duat esan kontuz ibiltoko?

-Oso kontuz gabiltz. Ez ala?

-Kontuz diñok, agerkunde baragarri au eratuta gero?

-Bai. Gure kontura polito bizi zaree zuok. Baiña ori amaitu zan. Geuk be geurea bear dogu.

-Zuek diru-zale batzuk baiño ez zaree eta diruagaitik naste guztiok ateraten dozuez. Noz bizi izan zaree obeto?

-Guk baiño geiago ta errezago irabazten dozue zuek, eta oraindiño bear dan beste ordaindu ez, gube lanak emoten dautzuen esnea! Baiña ori amaitu zan.

....

Geiago berbarik ez eben egin.

Ertzain-buruak, atxe bertan, Sabinⁿ eri lepoko batzuk emon eutsozan eta beste ² leu bagunegaz batera espetxeratu eben. Baiña ez luzeroko. Iru egun igaro ondoren agertu zan etxera.

Bere emaztea itxaroten eukan. Besarkada bero baten alkartu ziran:

-Ba zatoz, Sabin? Nire biotzeko argi bakar ori!

-Bai, Amaia maitea! Eta pozik etorri be. Uste dot zer edo zer lortuko dogula.

-Egun oneik ondo garratzak izan jataz. Baiña onerako izan ba'da... Eta zer? Enparantzan jo egin zinduezan. Eta Barruan?

-An be lenengo egunean apur bat bai, Amaia, baiña ez da ezer izan.

-Eta barririk ba daukazue?

-Beintzat erantzuna artu dogu. Esmea eroaten asteko diñoskue eta datorren illearen asieratik salneurria neurriko pezeta bat geiago izango dala.

-Eta sifiatu egiten dautsazue?

-Berba ori beteten ez ba'dabe, lengo bideak zabalik daukaguz.

.....

Baiⁿ benetan izan zan. Alan bear be ta, esnearen salneurria obetu zan eta baserritarrak pozik geratu ziran. Baita ezertan sartu ez ziranak be. Oraindiño gizon maillara ta batasunera guztiak eltzeko naikoa urrin gagoz, baiña gure denporetatik ona asko obetu gara.

.....

.....

Esne-ukoa, lenengo oinkada on bat izan zan erria zurtuteko. Batez be base-
rri-alkartekoak beti egozan, arrezkero, zer edo zer egitera.

Gure txikiak euskera irakurten eta idazten ikasi egien, ikastola bat ipin-
tea be erabagi eben. Egunoro, seiretatik zortziretara, umeak batzen ziran eta
andereiño batek euskera irakurten eta idazten irakasten eutsen. Lenengo buru-
-bidea, egun guztirako ikastolea izan zan, baiña ori ezin legetu! Ikaste-orduetan
erderaz ikasi bear! Egia esan, ikastolak euren bideak artzen dabez bein legetu
ezkero, baiña bide onetatik be euren elburua lortzen dala ta, erriko eskolea
dauan lez iztea eta afdik kanpora, euskerea irakastea erabagi eben.

Noiz etorriko ete da geure izkuntzea eskoletan irakasteko area!

Ez beste izkuntza batzuk ikasi bear ez diralako. Bai espeñera eta bai fran-
sera be umeak jakitea bearrezkoa da, eta zenbat eta izkuntza geiago jakin obeto.
Baiña oiña beintzat geurea izan daitela.

Umeentzako, batez be udaldirako, jolas-baratz bat be bearrezkoa zan, Ori
be lortu eben. Esku-lana eurak egin eben asti-eldietan, erriak be ainbat diru
emon eutsen. Beste tokiren batzutatik be izan ziran laguntasunak eta gaur umeak
pozik ibiltzen dira euren txinboetan, euren urtegitxuan, pelota-lekuan...

...

I V

K O L D O
=====

T A
=====

G A R B I N E
=====

EKINTZAILLEAK
=====

OKAR ULERTU-EZINA

Bide-ertzean, etxe polit bat. Baratz txiki bat aurrean, bertan kolore guztie-
rako lorak, txakur txiki maitati bat... baiña barruan andra gazte bat itun eta ne-
katu, samintasunez beterik. Bere ondoan ume txiki bat ^Aaskatxuan negarrez.

Gure Garbiñe da. Urte bi dira ezkondu zala. Bere gizona, Koldo, nekez etxean
gogoten da. Etorten danean be ez da ain maitati agertzen: beti neketuta, beti logurez,
maiti arduraz... Bai, gure Garbiñek makiña bat egun illun igaroten ditu...

-Egunon! Garbiñe! Zelan bizi az aspaldion?

-Beti lez ama. Neure umetxuagaz bakarrik.

-Nondik don ba ire Koldo!

-Nork jakin, ama. Nik aren barririk sekula ez dot jakiten. Eta bear ba'da one-
an obeto izango da.

-Eta ez duan esaten berak nondik edo zetan dabillan?

-Onelan... zer edo zer bai.

-Zer don ik dakidana?

-Ara! Lengo egun baten ingi bat eukan partikeran eta, nuntzebarria be apur bat
a naz ta, irakurri egin neuntsan%

"EEE'n agiria.-Eusko-ekintzailleen Elkartea gara gu. Gure elburua Euzkadi az-
atzea da. Baiña Euzkadi askatzeko Karl Marx'en bideak artuko doguz, baita bere trebe-
tasuna be. Beti gogortasunez jokatuko dogu askatasuna lortu arte eta orduan beneta-
n demokrazia garriko dogu, orduangure Erria atsegin-baratz bat izango da..."

Ulertzen dozu, ama?

-Asko ez Garbiñe. Bide barriak dirala uste jpat. Baiña elburua lengoa. Eta noz
gorriko don Koldo?

-Gaur etorriko da ama. Ez da asko atzeratuko berea etorrerea.

-Ia neu emen nagola etorten den. I, Garbiñe, bere bizitzea be gogorra izango
on, ez?

-Bai, ama. Ez dakit zer ikusteko gagozan. Usterik gitxien danean, bear ba' da alargun geratuko naz. Orreik gogor dabiltz, ama!

-Eta zergaitik uste don sartzen dala olako arriskueta? Norberekeriagaitik?

-Orixe ez, ama! Berekoa ez da Koldo. Oso biotz-zabala da!

-Eta zergaitik ez don alegin apur bat egiten bere bizitzea ulertu eta beragaz batera Aberriaren alde jokatu teko?

-Aberria! Aberria! Ondo dago! Baiña ezkondu egin zan eta emaztea be emen dauko, seiña be emen daukagu! Ekintzailleen bizitzea ori izan bear ba'da, zentarako ezkondu? Andra bateⁿ bizitzea saminduteko?

-Ez joaⁿ uste ondo agoanik, Garbiñe! Euk ikusiko don! Baiña apur bat adoretuagoa izan bear don. Aberria eurea be ba don eta ik aren beste neke ez daukan, aren beste arrisku be ez. Zergaitik ez dautson lagunduten, poz emoten! Orrelan etxean artzen ba'don, zelako poza eukiko jon etxerako?

-Baiña bera otza da, ama! Aren^a be maitale ez jat agertzen!

-Eta ori eu ezin don lortu? Batez be gizon gazte eta biotz aundiko bategandik? Eu izan adin maitalea ta biotz-biguna etagizonaren gogorkeria laste bigunduño don! Baiña eu be, bere antzera, otz jarten ba'az, zuen bizitzea arrisku aundian jagon?

....

-Egunon, ama! Egunon Garbiñe! (Koldo'k biak besarkatuez).

-Kaxio, Koldo! Zelan abil^z ba?

-Oso neketuta, ama! Lan asko daukagu. Ba daukat logura bat! Zer janik ba daukazu, Garbiñe? Lo joan bear dot berealaxe.

-Bai, bai! Zoaz lotara ainbat lasterren! Ez zarala ezkondu esan leike! Beti kanpotik, beti nekatuta, beti logura, .. eta emazterik edo semerik ba'daukazu be ez!

-Gaur be asi zara, Garbiñe? Kanpoan samintasunik ez ba'neuka ka lez, etxean be nekeak arrerazoten? Orretarako ba'da, nik ez dot bear emazterik, ez semerik. Aurreragoko zeregiñak daukadaz nik. Eta nire bidea onartzen ez ba'

dozu, zu zoaz zeuretik eta ni ni ibilliko naz neuretik. Guztiok zareen bardiñak, androk! Norberekoiak! Zeok ondo!

Orreixek izan ziran Koldo'ren azkenengo berbak. Jan barik, lotara joan zan. Garbiñe negarrez geratu zan. Ni zurtz eginda. Umeak txikiak berak be, ulertu ba'leu lez, negar egiten eban.

Sekula neure etxean olako ikuskizun mingots eta gogorrik ez neban ikusi.

Zér jazoten ete zan Koldo ta Garbiñe'ren artean?

Egia esan ekintzailleen bizitzea gogorra ta arrisku aundikoa zan. Ez ete leiteke obeto izango ekintzailleak ezkongekak izatea?

Baiña ulertzaille ona ta laguntzaillea izan ezkeru, zelako poza ekintzaillearentzat? Eta zelako laguntasuna!

Ekintzaille bategaz ezkontzeko, norberak be ekintzaille edo antzekoak izan bear. Guztiak ez dabe onetarako balio, baiña nik uste dot Garbiñe'k baietz, balio dauala.

.....

ALDAKUNTZEA TA BATASUNA.

Bere nergar-aldia amaitu ebanean, urreratu najakon Garbiñe'ri eta neure burutasun au azaldu neuntzan. Eta ulertu egin eban.

-Neuk dot errua, ama! Ezelako amesik bako andra bigun bat nazalako! Nik beraren besteko amesak eta neke-eroapena na'neukoz! Neu be zoriontsu izango neiteke eta bera be gaur baiño zoriontsuagoa. Baiña aldatu al izango naz, ama?

-Bai, alabatxu! Benetako abertzaleen odola daroazu zuk. Koldo'ren burubide guztiak ezin onartu izango dozu. Bardin-bardiñak ez dira izango bion eritxiak, baiña Aberriaren alde aren beste neke eroateko adorea izango dozu. ~~Ik~~ Ikusiko doguan.

Garbiñe'ren arpegia poztu zan guztiz, antz-aldati zan. Eta geiago barik joan zan Koldo'ren lo-gelara. Koldo, ainbat ordu lo egin ondoren, itxarrik egoan.

-Koldo! Koldo! Egin dozu naikoa lo?

-Bai. Zer gura dozu ba? Zetan etorri zara?

-Parkeske najadortzu, Koldo. Emazte ona ez najatzu izan. Zure bideak ez daut
tzudaz ulertu. Neurekoi bat izan najatzu. Baiña au amaitu da. Gaurtik aurrera la-
guntzaille nozu. Betara nekeak artuko doguz, batera Aberriaren alde ekingo dogu,
batera neketuko gara eta batera atseginduko gara.

-Bai, Garbiñe. Baiña nondik aldakuntza au? Benetakoa da gero. Eta iraunkogra?

-Oraindiño ez nozu ezagutu. Koldo. Ikusiko dozu zure emaztetxua zelakoa dan,
benetan asten danean.

Besarkada luze ta bero bategaz amaitu zan alkar-izketa au. Laster etorri
zan Koldo eskatzera, baiña beste Koldo bat zan. Ederto betn jan eban, bearrizana be
ba eukan eta. Sendi aretan bizitza barri bat asi zan. Umeak zeaskatxuan irri-narre
egiten eban.

Gau pozgarria izan zan benetan Koldo ta Garbiñe`rentzat. Etorri zan etxe
betara benetako ezkontza-batasuna.

Urrengo goizaldean jagi ziran. Barau-ausi eban Koldo`k, bere pistolea ar-
tu eban, eta eguna argitu baiño len, bere emzateati agur bero bat egin eta joan
zani

-Biar arte, Garbiñe. Biar gaberako set etorriko najatzu eta barri on as-
ko ekarriko dautzudaz, ikusiko dozu. Bear ba`da, zeuk egin al daikezun lanen bat
be bai...

~~EGINBIDE BAT~~

Urrengo illuntzean, ez jakon etorri Garbiñe`ri bere senarra, baiña bai
beste iru gazte.

-Arratsaldeon, Garbiñe! Koldo gaur ezin etorri izango jatzu. Bere izenean
gajartotzuz. Biar lantxu bat egin bear dogu eta zure laguntzea ondo etorriko jaku.

-Eta zeñ izango da nire egin-bearra?

-Erreza. Gu Gipuzkoa`ko diru-etxera sartuko gara, diru-aldaketa bat egi-
tere. Eta ertzaifnak gure atzean ibilli leitekezan lez, zuk atea zaindu egizu eta e
etorte`ba`dira #ib tintiña jo zuk. Egin zeinke ori?

-Bai. Ori erreza da.

-Urrengo goizeko bederatziretan an egoan Garbiñe diru-etxeko ateetan.
Iru karatuladun etorri ziran ara. Garbiñe`k ezer ez eban ikasi, baiña ordu-lauren
barru agertu ziran ertzaifnak. Berak jo eban tintiña, barruan ariñeketa bat susma-

tu eban, eta ertzaiñak pistolea biotz-gaiñean ipiñi eutsoen:

-Geldi emen! Zer egiten dozu zuk emen ateetan?

-Gauza auditik ez. Lagun batzuk dagoz or barruan eta ni eurai itxaroten.

-Zertarako jo dozu tintiña?

-Neure lagunak arin atorri daitezcan.

-Sartu zaite or gure kotxean eta gero esan bearko dozu dakizuna.

Orduan ertzain biak artu eban Garbiñe, eskuak lotu eutsoezan eta ertzain-etxera berebillean eroan eban. Baiña ordurako iru ekintzailleak lau milio pezeta artu ebezan diru-kutxatik eta beste ate batetik iges egin eban.

Iru egun egin zituan garbiñek barruan eta urten ebanean, ikusi nebanerako esan neuntsan:

-Garbiñe!

-Ama!

-Gogor artu zaitue?

-Bai ama! Asto utsak dira. Ekintzailleen izenak eskatu daustez eta nik ezin esan, ez dakidaz eta. Baiña zelako berbak esan daustezan!

-Eta zigortu?

-Apu bat baiño ez, ama: belarri ondoko batzuk, esku-lokarriak estutu...

-Ba dira lotsabakoak gero...!

...

Egun batzuk barru etorri zan Koldo be:

-Garbiñe, neure maitea!

†Eta berbarik barik biak besarkatu ziran. Garbiñek negar egiten eban.

Berrin Koldo'k:

-Asko zigortu zaitue?

-Bai, Koldo! Oñak zaurituta daukadaz. Ikusi atzazalak...

-Txakur madarikatuak! Eta ezer esan daustezue?

-Ezin esan ezer, ez nekian eta. Baiña ezer jakin ba'neban, esan-bearra baiño ez.

-Edeozelan be, zorionak emon-bearreko naukazu. Lan ona eta ondo egin dozu. Oraintxe bai gure alkar-maitetasuna osoa dala! Aurrera egin bear dogu, Garbiñe!

-Bai aurrera! Baiña urrango zeu izango zara, gertatu zaite... Zurea gogorragoa izango da. Ez dozu uste?

-Egin dautzue nitzaz itaunik?

-Non zabiltzan itandu eusten. Bilbo'lan egiten dozula erantzun nuntsen eta kitu. Oraindiño garbi zagoz euren aurrean, antza. Baiña ez luzeroko izango.

-Nor izan da gogorren artu zenduzana, Garbiñe?

-Perales ertzaiña. Axe bai ba dala lotsabakoa ta astoa!

-Kontuan eukiko dogu!

KOLDO'REN ERITXIAK.

Orelako ekingza askotan izan ziran arteko erriketa-ekintzaille euskaldunak. Egia esan, nik ezin dot bide ori ontzat artu, gogorkeri-antza artzen dautsot eta onelantxe esan neuntsan bein baten Koldo'ri:

-Ez dok uste, Koldo, gogorregi zabiltzela?

-Zer uste dozu, ama? Agurtza egunero esanaz, Euskalerrria askatuko dogula? Makifia bat otoitz egin dozue zeuen denporan Errria askatzeko. Eta Errria geroago ta lotuago!

-Bai, mutil, Baiña elburu bat lortzeko edozein bide ezin leikek artu gero!

-Elburua bearrezkoa ba'da, bideak onak dira, ama!

-Parkatu egistak, Koldo! Baiña nik ez jpat orrelan ikusten!

-Ez estutu, ama! Zuk otoitz asko egin, eskatu azkatzailleak. Nik pistoleagaz eta bonbakaz eskatuko dot. Ia zeifiek lenago lortzen dauan!

-Eta, ainbeste gogorkeri baiño, Erriari kontzientzia sartzea ez leitekok obetoe izango?

-Erriak kontzientzia artzen dauanean, geuk egiten doguna egin bearko dau.

-I, Koldo! Eta erlejiño-gaietan zein dok zuen buru-bidea?

-Jaungoikoa geugaz dago eta Jainko-zale askok guzurrezko jainko bat gurren dabe. Jainkoa Errian dago, Erria salbatzen dabil, geugaz dago. Orregaitik, ez dogu erabilten bearrezkoa dan gogortasuna baiño.

-Eta Eleizea, Koldo?

-Eleizea Erriaren aurka ba'dago, saltzailleen batzarra da eta bere aurka gogoz. Erriaren alde ba'dago, barriz, indar bizi bat eta laguntzaille ona dogu. Eleizea Jainkoagaz ba'dago, Erriagaz dago, geugaz dago.

-Erria zeuek bakarrik zareela uste dok, Koldo?

-Ez. Gu bakarrik ez. Baiña gure arerioak, beintzat, ez dira Erria. Arerioak ez diran ixilleko lagun asko daukaguz, Erririk geiena. Baiña kontzientzi gitxi dauke eta orregaitik ez dira ekintzailleak. Ez eta arerioak be, orregaitiño.

-Eta euskereari buruz gaur diran goraberatan, zein da zuen eritxia?

-Euskerearen alde gogoz, oso-osoan. Erriaren ezaugarriak argiena da gaur. Eta euskalerrri bat gura dogun lez, euskera bat gura genduke. Zelako euskerea eta zein erria bear dauan, Erriak berak eta gai orretan trebeak diranak esan bear ko dabe. Orretan ez gara jakitun. Orain egin daben batua erabilten dogu geure agirietan, baiña arerio lotuta be ez gogoz. Baiña euskal-izakereagaz bat eginda dago euskerea.

-Eta elburu erreik lortzeko zenbateraiño itxaropena daukazue, Koldo?

-Itxaropen osoa. Baiña epea ezin geinke neurtu, Geuk gauzak bereala gura doguz, baiña arerioak indarra dauke.

-Ara, Koldo! Ni zarra be ba nok eta, geiago ezin negikek. Baiña Errian dagola erria dironen Jaunari erregu egingo jautxeat, argitasuna ta adreia ekintzailleai emon erregaitzuen. Baiña gauzak ondo pentzauta egizuez, gero!

-Bai, ama. Baiña beste gauzatxu bat esan bear dautzut. Zuek lenago gudea egin gendunanean, zeuen gaztaroan, otoitza baiño zerbait geiago egin zenduen. Orduan Erriaren bidea erakusteko egite ederra egin zenduen. Ori kontuan eukiten dogu.

-Bai, Koldo. Baiña galdu egin gendun!.

-Ez ama. Gudaldi batzuk galtzea ez da gudea galtzea. Jarraituko dogu zuen ordu ederraren bidetik. Orduko zuen nekeak eta eriotzak ez doguz aitzuko. Baiña gauzak ondo pentzetan doguz. Orretan orduak eta orduak egiten doguz.

Ekintzailleak uri aundietan batzen ziran euren batzarrek egiteko, olako laketan errezago ertzaiñai iges egiten eitsen eta. B

Baiña ez beti.

Euren artean salatariren bat egoalako edo, egun baten, batzarrera doazela, jazoera negargarri bat izan eben.

Batzoki zan etze-barruan ertzaiñak aurkitu ebezan eurak baiño lenego ara joanda.

Eta an jazo zan jazotekoa!

Ertzaiñak eta ekintzailleak alkarren aurka tiroka asi ziran.

Laster ertzain geiago agertu ziran eta kale bazterrak odolez gorritu ziran.

Gure Koldo'k, tiro batzuk artu zituan eta, zelan edo alan iges egin bear izan eban.

Taxi bat artu eban eta uritik mendirantza jo eban. Baiña taxia eroianak zaurituta egoala konturatu zanean, ez eban eroan gura. Orduan berak, taxia kendu eta berak eroan eban. Gero taxiduna, bide-ertzean in da aurkitu eben.

Laster asi ziran ertzaiñak bere billa, baiña bera lagun baten etxera joan zan eta antxe, osagille bat ekarrita osatu eben.

...

GOGORKERIAK

Jazoera oneik zirala ta, ertzaiñak oso gogor jarri ziran, batez be Perales ertzaiña. Espetxera orduko ekintzailleai, bai mutillai, baita neskai be, gifaze ikaragarriak ezarte eutsezan eta iñoz egi-drogea be erabili eben.

Baiña gogorkeri oneik ekintzailleen jokerea gogortu egin eben. Ortik kontu zan ekintzailleen artean Perales ertzaiña ilteko erabagia. Eta barrira odola gure artean! Geroago beste ertzain batzuk be il ebezan, eta ez gitxi!

...

Bariki arratsalde bat zan. Koldo'k eta Garbiñe'k euren semetxua etxera ekarri eusten, sarri egiten eben lez, eta iñoz ez lako agur bero bat egin eusten.

Zer jazoko ete zan! Ni benetan bildur nintzan.

Urrengo egunean, izpar-ingiaren bidez jakin neban jazoerea: "Atzo arratsealdean, lenetik bere etxera joiala, Perales artzaiña il dabe. Etxeko ate-barruan dagon mailladian, karatuladun gazte batek lau tiro jaurti eutsazan eta bertan ~~iza~~ il zan Perales ertzaiña. Ertzain mordo aundia agertu zan laster, baiña ondurako iltzailleak iges egin eban. Ertzaiñak bere billa dabiltz. Ziurtasunik ez dago oraindiño, baiña EEE'koak izan diralako eritxia dago."

Jazoera ori zala ta, EEE'koen usaiñik izan leiken gazte guztiak espetxeratu ebezan mertzaiñen etxean luzero euki ondoren.

Koldo ta Garbiñe egunetan be ez ziran egiri ta ni larri nengoan.

Sabin'eri deitu neuntsan eta auxe esan neuntsan:

-Sabin, Koldo ta Garbiñe ez jagozak etxeak eta ni larri najagok. Ez ete jagozak ertzain-etxean?

-Ori bertara joanda jakin geinke, ama. Joan egingo naz?

-Bai, ~~joadi~~ Jan= Joan adi, Sabin. Baiña kontuz ebilli adi gero! Orreik okerrak dozak eta.

Joan zan gure Sabin ertzain-etxera eta an itandu eban. Biak egozan barruan, baiña ez eutsoen itzi ikusten. Janariak eta estalki batzuk eroan ebazan, gosez eta otzez egon ez daitezkan.

Andik illebetera edo, espetxeratu ebezan. Eta urtebete igaro ondoren epaikundea egin eutsen.

Baiña epaikundea izan baiño egun batzuk lenago, Garbiñe etxeratu zan.

Egun a ez jat ifioiz aztuko.

Umetxua zaintzen nengoan etxean eta txakurraren ausia entzun neban. Etxe-aurrera urten nebanean, Garbiñe ikusi neban; negarrez alkar besarkatu gihan. Bera oso makal egoan, bere koloreak oso zuriak, berba be ez eban zuzen-zuzen egiten.

-Zelan ibilli zara, Garbiñe?

-Oso txarto ama! Ertzain-etxean igaro nituan egunak nekaldi gogorra izan diram. Ez neban sinistuko gizonak ain basatiak izan leitekezenik! Zelako zigor-aldiak! Zelako oiñazeak! Andreari berez zor jakon itzaltasuna be kon-tuan artu barik! Eta ni onelan erabili nabenean, gure Koldo zelan ibilli ete da!

-Biok ixildu giñan eta negar-aldi samiña egin gendun.

Egun batzuk igaro ziranean, Garbiñe apur bat baretu zan. Gizendu be bai. Eta berba zuzen egiten be asi zan.

Baiña egunik larrienak etorteko egozan. Epai-egunak.

....

ERROMA'N

Koldorentzat salatzaillak eriotzea eskatzen eban. Bardin beste sei lankideentzat be.

Epaialdia izan baiño len, espetxean egozeneren gura goak eta etxeakoak alkatu giñan.

Lenengo Erroma'ra joan eta Aita Santuagaz alkar-izketa bat eskatzea arabagi gendun. Eta neure sartzaroon, egazkiña artu eta Erroma'ra joan nintzan.

Jauretze ederra, benetan, Aita Santuaren bizi-lekua!

Bere inguruan apainkeri ta otseintze larregi ikusi be neban.

Baiña guztia parkatu leikean ondo artu be genduzan. Ango gotzain-antzeko otean bat urreratu jakun eta auxe esan euskun: "Aita Santua oso lanpetuta dago eta zuek artzeko ez dauka astirik. Baiña biotz ona zuei agertzeko, gomutapen lez, errobari bana emoten dautzue".

Sekula ez neban uste onen lako eginbidea artu leikenik, Kristoren ordekoak. Garbiñe asko jesanda be ba egoan eta, bere sinismena galtzeko gitxi bear ebala etorri zan. Baiña, alkar maite be ba giñan eta, berbaz alkar poztu giñan eta gure sinismenari eutsi geuntsan.

Geure epaikunde-egun larriak! Eriotzarako epai ori zazpi gazteai emon eutan, baiña ludi guztiko gizonak be arduratu ziran eta, gero, legeen arauz erio-tzarako epaipena parkatu eutsen eta betirako espetxeratu.

Alberto ta Koldo espetxean doguzala, gure bizitzan poz aundirik ez
geunkant.

Baiña aurrera egin bear, biziak bizi-lan!

^{ai} Noizean bein eurak ikustera joaten gara. Gauza aundirik ezin al~~k~~karrari e
gean, baiña beintzat alkar ikusi eta alkar postu egiten dogu.

Etorriko al dira gure Erriarentzat egun obeak.

Baiña aztertu doguzun espetxean...

.....

Odeiak ur eta baltz egozan eta laster entzutekoa zan odei-ots ikeragarria.

Epai-aldi nagusi bat gertatzen ziarduen eta EEE'koak izango ziran epai-tuak. Zortzirentzako eriotzea eskatuko ei zan.

Aspaldion ~~nie~~ eriotzea, zigor lez, ez dabe onartzen lege-gizonak. Ezta erriak be. Beti entzun eta ikasi dogu a: "Ez dozu iñor ilgo", orretan be bete bearrekoa ei da.

Eta neu be eretxi orregaz batera nago. Gizartean iltzailleak eta gizon kaltegarriak ba dago, ez dago beste biderik, eriotzea baiño, kalte orreik kentzeko? Gaiñera zelako utsak eta zenbat egiten dabezan gizonak, arerioak beti txartzat eta lagunak beti ontzat artzen diranean.

Baiña, salatariaren eskaria eginda egoan eta gure mutillak bizirik atera bear ba genduzan, lan eginbearra egoan. Koldo zan, salatariaren eritxiz, eriotzarako epaiti bearreko bat. Albertorentzat ogei ta hamar urte eskatzen ebazan.

Eta eginbearreko lana egin zan. Atzerrian erakunde ta adiskide asko arduraz egózan eta epai-aldi oneria garrantzi aundia emoten eutsoen. Epai-eguna baiño lenagorik asita, eldu ziran parkapena eskatuez ainbeste ta ainbeste eskari. Eta bertotik be makiña bat telegrama bialdu ziran.

Mundu guztian giro bero ta bizi bat sortu zan, baiña gu bildur giñan. Zelan ez? Gudari-buruak egin bear eben epaikundea eta orreik gure Erriari dautsoen gorrotoa ta amorrua ondo agirikoak dira. Eta oraintxe euken euren egarria beteteko areea.

Zuriñe egun orreitan ez zan bizi be. Gau guztietan entzuten ebazan atzerriko irratiak, batez be BBC ta Paris. Ortik jakiten eban epai-gaien alde atzerrian egoan giroa. Ortik datorkon poz eta bake apur bat. Baiña oso artega eta astu bizi zan. Egun areitan egin genduzan otaitzik beroenak gure gazteen alde.

...

Egun bi lenago joan giñan epai egiteko aukeratua zan uri-burura. Berebillean egin gendun ostera. Bidean ertzaiñak iru edo lautan geure noriki-agiriak eskatu eskuezan, baiña azkenean eldu giñan.

Ertzaiñak bideko azter-aldietan olako itaunak egiten euskuezan:

-Nora zoaze?

-Epai-aldira!

174

-Zertarako?

-Senideak gara. Au euretatik biren ama. Gu etxeakoak.

-Atera norki agiriak!... Bai abizek dakioenez egia da... Zelako semeak aza-
duzu, andrea? Zeleko ezipena emon dautsezu?

Eta ~~gela~~ olakoak entzun arren ixilik egon bear, eurak ziran nagusi ta. Garbi-
re berotu egiten zan, eta iñoz esan eutsen: "Zuek ez zarete epaikariak eta zeuena
ez dan arloan ez a zateze sartu". Baiña eurek gogor jarten ziran eta nik Garbi-
re ixildu azo egiten neutsan.

...

Itxaroten egin genduzan orduak luzea izan ziran gutzat, baiña eldu zan eguna
ta ordurako epei-etxera eldu giñan.

Aretoa bete-beterik egoan: senideak, izparlariak, argezkariak, ertzaiñak... Asko-
bako gizonak egozan .

Aurrean epai-maia: Gizon bildurgarriak ziran, gudari-jantziakaz, bular-gai-
rean izar eta domiña disdiratsuak, garrian eta bularrean ugelezko zerrendak, gai-
rean pistiña luzedun zerrenda zuriak, ugeletik eskegita asta-makilla distiratsua,
gogor betaurrekoak, argiak edo illunak,.. Ainbeste ertzain, gudari-buru, distira...
A zan gizo bildurgarria!

Laster sartu ziran epai-gaiak edo, eurak esaten ebenez, errudunak: Eskuak
lotuta, espetxeko jantzi bereziakaz, bekoki illunak, baiña, jakiña, ezelako izkillu
barik eta ezelako distira barik. Antxe jarri ziran zortzirak euren tokietan, bakoit-
zak bere legegizon aldezlaria ondoan ebala. Beste aldean agiri zan salataria be,
gizon adifekoa, illuna, biotz-gogorra. Gudari-buruetarikoa zan au.

Lenengo salatariak egin eban berba eta bere ebatzia agertu eban: zortzirentzat
erlotzea, besteentzat urteak eta urteak espetxean

Gero aldezlariak, baman-banan, egin ebezan euren berbaldiak. Egun batzuk onetan
gero genduzan, baiña azkenengo egunean gertatu zan aundiena: Epai-gai batek, esku-
bidea emon eutsanean, berba egin eban eta auxe esan eban:

"Gu esa euskaldunak gara eta euskalduna ez dan epaikaririk ez dogu onar-
ren. Gure Erriak epaituko gaitu. Gora Euzkadi!"

Berba oneik esa ebazenean, beste guztiak asi ziran epai-maikoen aurka zemai-
guztiak batera abestu eben: Euzko-gudariak gera, Euzkadi aukatzeke..., aretoko
lanteak be aurakaz abestu eban.

An urte zan nastea!

Baika bertan amaitu zan agiriko epaikunde ori. Epai-gaiak espetxeratu ebezan, baina kanpora atera eben jentea, eta epaikundea ixillan amaitu zan.

Eta epaipena?

Salatariak eskatu ebazan zigorrak geieñak omtzat artu ziran eta zortzirak erio-
rako epaituak izan ziran. Gure Koldo be bai.

Egun mingotsa benetan a! Ez egoan beste urten-biderik, Agintari Nagusiaren parka-
balmo, neure semea bizirik ikusi gura ba'neban. Ogei ta lau orduko epea egoan orre-

ko.

Apeik bai ordu luzeak!

Baika azkenean, atzerritik egoan ekiña zalako edo, parkapena emon eban Buruza-
eta ogei ta amar urterako espetxeratu ebezan. Eta eriotzearen ordezeko espetxea
ez, parkapena gaitxagoa zan.

Alberto'ri ogei urterako espetxea ezarri eutsoen.

Urrengo egunean etxeratu giñan: Nekatuta, aulduta, burua galduta lez... baiña bein-
egun baten guztiok bizirik alker ikusteko itxaropenaz.

Alberto ta Koldo espetxean egon ziran denporetan, zenbat osterara egin gendun
 bietara! Amaia'k laguntzen eustan beti, eta azkenengoetan Gerbiñe'k be bai.

Joateko egunak eta orduak izendatuta egozan eta geienetan alperreko joan-eto-
 ez gendun egiten. Iñoz bai, gose-aldia egin dabelako edo, eurak ikusi barik etor-
 rian.

Eta ez zan ikustea bakarrik izaten. Janariak be eroaten geuntsezan, bertan
 eutsen jatekoa iñork ezin ebala iruntzi esaten eben eta. Jazkiak be ugari
 geuntsezan. Nork emona be izaten zan, eta gure mutillak, alde orretatik ez eu-
 zen bearrik.

Espetxera eldu orduko, txapel-okerrak ugari ikusten genduzan. Agiriak eskatu
 bekoki illunagaz baiño ez ba'da be izten euskuen sartzen. Lenengo burdiñez-
 ate sendo bat zabaltzen euskuen, gero eroaten genduana dana kentzen euskuen, gero
 burdiñezko ate lodi bat eta jesarleku batzutan itxaroten gendun.

Laster etortzen zan gure Koldo: alai eta pozik. Barruko miña estaltzen alegin-
 zan, ama poztutearren; baiña eroapen aundiakoa ta alaia da Koldo.

Alkar-izketak erdera egin bear izaten genduzan. Berbaren bat euskera egin
 gogor egiten euskun burdin-sara bien erdian ara ta ona ibiltzen zan ertzai-
 nik erdera asko-asko ez nekian, baiña zelan edo alan alkar ulertzen giñan.

-Zelan zagoze, Koldo!

-Emen pozik, ama! Pelotaka jolas-aldi ederrak egiten doguz, alkar-izketak be
 abestu, dantza... dana

-Eta jaten zelan emoten dautzue?

-Ederto, ama! Baiña gu euskaldunak jatunak be ba ba gara ta, zuen laguntasuna
 etortzen jaku.

-Urte-gurea eukiko dozue, ez?

-Urten-urten... bai, baiña emen kanpoan baiño asko taxartoago ez gagoz.

Igarten neutsan Koldo'ri zergaitik olan berba egiten eban, gaiñera lantzean
 bat egiten eustan berak be.

Alberto'gama be joaten giñan naikoa sarri. Alberto'ren espetxea gogorragoa
 gogorragoa. Zergaitik? Nork esango leuken! Eleizeak eta larterriak alkartu-
 gindakoa zalako. Abadeen alderako lege berezi bat egoan, espetxea bigunagoa izan
 baiña asko gogorragoa zan.

Eta onelan, urteak eta urteak...

V

K E P A
=====

T A
=====

Z U R I Ñ E
=====

ZURIÑE ERES-ZALE

Zuriñe! Izen egokia gure seme-alaben artean gazteenarentzat!

Berak be ba ekian, antza! Zuririk jantzita ~~ibila~~ ibiltea nai izaten eban.

Eta erriko abadeak be sarri esaten eutsan, kanpotik eta barrutik zuria izan bear ebala.

Zuriñe, txiki-txikitatik, eres-zalea zan.

ELEIZAN ETA IKASTOLAN

Lenengo abestiak eleizan ikasi ebazan, eta antxe abestu be.

Aingerutxu baten antzera ~~abestuten~~ eban.

Ez jat sekula aiztuko, bizi nazan artean, bere Jauna-artze egunean egin eban abestia. Abesti zarra, ainbeste milla euskaldunek abestua. Baiña niretzat Zuriñe'ren abotsez ifioz ez lako samurtasuna eukan.

Jaunaren zerura Igikunde eguna zan eta gure erriko eleizatxuan amalau umek lenengoz Jauna-artu eban.

Mezea amaitu ondoren, Gure Zuriñe aurreratu zan: Zuririk jantzita, ez emazte-gaien erara, edozein domekatan jantzi al leiteken jantziz... baiña zuririk. Eta erri guztiaaren aurrean, bildur barik, bere urteai egokien baiño abotszolia-go ta ederragoaz abestu eban:

OGI ZERUTIK ETORRIA

ZU ZARA GURE POZ GUZTIA=

Gero etxean, urrengo senideak gugaz zirala, bazkaria egin gendun; eta antxe abestu ebazan Zuriñe'k bere lenengo bertsoak.

Zuri jaio naz, zuri
zuri bizi naz, zuri
zuri ilgo naz, zuri.

Usoa zuria izango da,
Laiñoa zuria izango da,
Zuriñe zuria izango da.

Mundua, gizonena
Zerua, gotsonena
Zuriñe euskalduna.

Txalo asko entzun ebazalako ta, bear ba'da, orretarako jaioa zalako, Zuriñe egun aretatik bertso zaleago eta eres-zaleago biurtu zan.

...

Ikastolan onetarako laguntasun berezia aurkitu eban. Zenbat bidar etxera orretarakoan, Zuriñe'k esaten eustan: -Ama! Gaur be abesti barri bat ikasi dogu. Entzun, ama! -Eta poz-pezik entzuten neuntsan. Beste batzutan: Ama! Gaur bertso barri batzuk ikasi doguz... -eta orrelan sarritan.

...

MAITE-MIN ARDURABAKOA.

Aprillaren lenengoa ta domekea zan egun a.

Zuriñek bere amabost aprillak bete ebazan.

Egun argitsua, zelaiak orlegi, Larreak loraz apainduak.

Larre baten erdian, pago eder batek geriza egiten eutsela, Zuriñe ta beste mutil gaztetxu bat ikusi nebazan. Na arratsaldeko eleizkizunetik etxera nentorren. Biak egozan, alkarrai eskua emonda, abesten:

MENDIAN, larra-arteon,
loretxo bat aurkitzen da.
Aurean, umetxo bat
loretxoari begira.
Loreak esan nai dio:
"Umetxo, auka nazazu,
Jaio naz libro izateko
ta ez loturik egoteko".
Umeak ikusirik lorea ezin bizirik
Arantzak kendu nai dizkio
bizi berri bat eman...
Orduan emango bai du
ugari bere frutua.

Abots bitara abeste' eben, baiña ain zoragarri!

Gau aretan etxera etorri zanean, irri-barrez, esan neuntsan:

-Azkatu al dozue arantzaz-arteke lorea, Zuriñe?

Zuriñe^{en} matraillak gorritu egin ziran eta laster erantzun eustan:

-Zer diñozu, ama! Zetara datorz berba orreik?

-Ori iñoan abesti bat entzun neuntzuen atzo Arantzolo'ko berezian.

-Ikusi gozuz, ez? Ta zer? Ezin neinteke mutil bategaz egon eta beragaz

abestu?

-Ez duaten olakorik esan, neska!

-Ez txarrik pentsau, ama, e? Biok gara eres-zaleak eta abestu egiten dogu.

-Bai. Eta eskutxuak alkarrari emonda obeto abestuten da, ez?

Ez eban erantzunik/emon, ain biotz-biguna zan lez, negarrez asi zan

-Ez egin negarrik egin. Ire urteetan biotzeko maitetasun beroa asmetea berezkoa don, ume-umea be ez az eta. Ez daukan ba zergaitik lotsaturik. Poztu adin gaztarora eldu aizan ezkerero.

Zuriñe'k, negar-malkoak kenduez:

-Asko poztuten naz, ama, zu ain biotz zabalekoa izateaz. Baiña ez txarrik pentsau gero! Kepak itzaltasun aundia daust.

-Ara, Zuriñe! Gaztaroko lenengo maillan zagoz. Ba leiteke gaur zuen artean agiri dan naitasun barri ori geroago ta sendoagoa izatez edo, baita, udabarriko lenengo lorak lez, otz-aldi batek galazotea. Baiña zu ez ikaratu. Benetako maitasuna izan egiozu Kepa'ri eta bere bear-izenetan g lagundū egiozu. Gaiñera biok eres-zaleak ba'zaree, obeto. Nork jakin noraiño eldu zeintekezen!

-Zure berba bakoitxak nire poza aundiagoa egiten dau ama! Zure onu argiak noko lagunduko daustelakoan nago.

-Eta asko ezagutzen don Kepa ire maite ori?

-Bai, ama! Antxiñatik alkar ezagutzen dogu.

-Biotz oneko mutilla don?

-Orixe bai!

-Euskal-zalea be bai?

-Berak iñoz kontuan artu ez dauan gai bat da ori. Baiña itzi, ama! Orretara-
neuk lan egingo dot. Gaur euskal-eresia ederra da, eta eresi-zalea izanik, neuk
euskal-zale egingo dot. Berak iñoz ez dau ezer aurka esaten, baiña abeslari os-
erakunde izateko giro orokorra daukan abestiak abestu bear dirala diño, gure Erria
dala ta. Baita, euskal-ableslariak beti aurrean erabilliko dabe zela be us-
te dau. Ori ta guzti be, erri-miña barruan dagoala uste dot, eta ez da gatxa izan-
go bide onetarako biok alkartzea. Ikusiko dozu.

-Eta ori lortu ezin ba'don, ez adin ikaratu. Beste gai askotan alkartu zein-
dakeze. Eres-zaletasunean beratan be bai. Eta alkarrari lagundu.

...

Baiña, zori txarrez, gure gazteak artu eben bidea ez zan ona, Jai-tokirik,
jai-toki, lar edanda, ezorduetan, dantza zikiñetan... galduta ikusten nituan eta
amalgarria zan niretzat.

AMAREN ONUAK

Egun baten, bear dan baiño geiago edanda etorri jatan Zuriñe bera.

Biamonean, eguerdi-aurrean jagi zanean, lotsaz urreratu jatan eta negar-
imulkoak begietan nituala, esan neuntsan:

-Zuriñe, ene alabea! Zer darabillen? Lotsagarri aiata!

-Labankada bat izan da, ama! Parkatu egistazu gaurkoagaitik!

-Baiña ez don gaurkoa bakarrik! Aspaldi onetan abil galduta! Zer jazoten
jaten ba!

-Jai-tokietako barria ba dakizu ama!

-Jai-tokiak orrelan ba'jagozan, zergaitak joaten az? Ez dakin ondo zer gal-
duta don! Ire izen ona, ire osasuna, ire almenak..., baiña batez be, ire gerorako
bear? Ba dakin daroan bizikerea arrisku aundikoa dana, baiña sendotu egin bear
don eta bizikera orretan izen onari eutsi. Eta zer diñosten Kepa'k?

-Zori txarrez, ama, bera be nire antzean edo txarrago dabil.

-Ta zeren itxaropenean bizi zaree ba? Ez dozue eresa maite? Zer egiten
dozue oi dan lako eres-zaleak izateko? Ezer ikasten dozue? Ala edan, jolastu ta
alkarrari laztanka ibiltea naikoa dala uste dozue. Zer itxaron leike zuengandik
gure Erriak

Zuriñe bigundu egin zan nire ama-asarrea entzuckerak eta besarkatuaz esan

gustan:

-Ezin dot, ama! Galduta nago!

-Asi egin bear don, alabatxu! Beti asi!

-Bai, ama. Sarri asi naz. Baiña bakarrik nago. Ezin dot.

-Kepa don lagun!

-Kepa'rentzako ni jolas-bide bat baiño ez naz. Ez daust itzaltasunik, ez benetako matetasunik. Berekoia da. Ondo bizitzea eta atxegin artzea baiño beste ameeik ez dauko.

-Orduan zer egiteko ustea don?

-Ara, ama! Zeuk lagundu egistazu! Nire barrua illun dago, argi apur bat eman egidazu!

-Bai? Ik ez daustan jaramonik egingo! Nire esnak alperrekoak izango dozan!

-Ez, ama!

-Ikusiko jogun! Nire aldetik ez jaten ezer ukatuko!

...

Egun batzuk geroago, Zuriñe'ren urte-eguna zan. Goizean lenengo alkar ikusi genduanean, ^{Zuriñe 'K} b irri-barre berezi bat eukan ~~Garbiñe 'K~~. Bere barrua baretuta egoan.

-Egunon, ama!

-Egunon. Zuriñe! Zorionak! Sekulako adiña! Nork leukezan ire amazortzi urteak!

-Pozik egon naiteke, ez?

-Bai. Sekulako gaztaroa don aori! Baiña adiñ orrek jaukazan ardurak eta beinbarrak be konturatu bear dozan, gero!

-Zergaitik oraintxe bertan ez doguz gauza oneik aztertzen ama? Apur bat bantseu bearreko nago. Zer egingo zeunke, ama, nire amazortzi urteak ba' zuekoz?

-Lenengo ta bein, eure geroari begiratu bear dautsan!

-Eres-zalea izan bear dodala uste dozu, ama?

-Abots ederra daukan. Ire entzumera be oso ona don. Doai orreik ezin dozan galdu. Orreik Erriaren onerako erabili bear dozan.

Pozeko irri-barre bat egin eban Zuriñe'k.

-Eta orretarako zer egin bear dot ba, ama?

-Lagun onakaz alkartu eta talde bat egin. Eres-ikasketak be egin. Irretzako gauza gaitza izango dalakoan najagon, egia esan, Aspaldian bigunduta agon eta. Baiña egunik latzenak igaro bear ba' dozan be, ez jagon beste biderik: ikasi sendo eta lagun sendoakaz alkar-lan egin.

-Eta nire Kepa'gazko artu-emonai zer deritxezu ama?

-Alkar maite dozue, eta ori gauza ederra don. Baiña maitekeri larregiak utzutuko ete zaituen bildur non.

-Eta neurria non dago, ama?

-Ori ezin legiken esan, Zuriñe! Baiña entzun egidan! Alkar ondo ezagutu zaitezte eta alkarraren utsak zuzendu egizue. Alkar maitatu zaitezte eta maitatu ori alkarrari agertu egiozue; maitetasun ori geitu te eldu daitela zuen artean, baiña maitekeria ganorabakoak eta ketokeriak itzirik, gertatu zaitezte zuen gerorako. Eta, jakifia, alkarrentzako ez zareela ikusten ba' dozue, beste bide be batzuk artu. Egia esan, ni alkarrentzako zareelakoan nago, baiña zeuek ikusi. Erria ltxaroten daukazue, ez egiozue utsik emon.

Berba oneikaz sendotasun bat asmau eban Zuriñe'k. Bere bizitzea oso-osoa aldatuteko erabagia artu eban.

Urrengo eguna domekea zan eta ainbesteko aldia egin ez ebana, mezea entzutea joan zan. Niretzako pozgarria izan zan bera autortzen eta Jauna artzen ikustea. Arik gora, meza guztietan Jauna artzen ikusten neban, baiña bere bizitzan azkenengo autortzea egin eban.

Domeka-arratsaldean, beti lez, Jai-tokira joan ziran Zuriñe ta Kepa. Zuriñe apur bat artega joian, baiña pozik.

Sartuta bereala, alkar-izketa au izan eben:

-I, Kepa! Zergaitik ez joguk gaur ibiltaldi bat egiten. Emengo giroa geroago irriagoa biurtzen jatak eta naikotuta najagok?

-Zer? Gaur be naikeriz asi az?

-Bai, Kepa. Betekoa zergaitik entzun egistak. Goazok!

-Goazoken ba. Baiña nik ordaiña eskatu duan gero!

Geiago barik urten ziran eta arratsaldeko orduak luzeak be ba ziran eta, ibiltaldi luze bat egin eben eta ^{orka} ~~al~~-izketa gogor eta sakon bat be bai.

-Gure geroa zelakoa izango dala uste dok, Kepa?

-Itzi egion geroa ~~bi~~ Gazte gozan eta gaztaroari onura guztia atera bear jaugun. I lako neskatxu atsegingarri bategaz pozgarria don gaztaroa. Ardaoa ez jaugun karu eta aibak eta amak jai-tokietarako beste emongo jauskuen!

-Eta urte batzuk barru, gaztaroa igarotakoan, zer Kepa? Eta gaur bertan, zer gaiten joguk? Gaztediaren alde eta gaurko mundu obetuteko zer?

-Ala, ala! Ez egin ketokeririk esan! Gaur egun txarra daukan!

-Zergaitik ez joguka apur bat pentsetan? Ara Kepa! Eredlariak gozak eta zer egiten joguk? Euskaldunak gozak eta zelan jabilk gure erri-miña? Kristiñauak gozak, eta zelan jabilk gure maitetasuna? Gazteak gozak, eta zetan jbak gure gaztaroa? Edan, dabtzan ibilli, abestu, zuster barik, alkar atsegindu neurri barik... eta ezer be ez! Zentzunik barik, Kepa! Ez najagok era onetara, Kepa! Eta gure alkarrazko artu-emonak zer? Ezelako ardura barik, ezertarako alkarrari lagundu barik, gerorako gertatu barik, ibilli ta ibilli... Benetan diñuat, Kepa! Eta sarri sarri duat! Maite uat! Baiña ganorazko hibe batzuk artzen ez ba joguzak, ni ez nabilk!

-Orreik zarren arduak dozan, Zuriñe! Gaztaroa ez don orretarako!

-Zentzun bako gaztea izan gura ba dok izan adi. Baiña nire zorakeri guztiak amaitu dozak eta betiko amaitu be. Ik ba dakik apur bat buru-gogorra nokena, eta gaur ifnoz baiño geiago. Entzun egidak, Kepa: Edo aldatu edo betiko agur.

-Betiko agurrik ez Zuriñe! Orixe ez gero! Ezergaitik be ez! Zer egin gein-kan ba?

-Lenengo ta bein,geure geroari eta Erriari begiratzuz,ereslaritzarako gerta-
tu.Gero,alkarrari dautsagun maitetasuna aintzat artu eta alkarrari lagundu
gerta-bide oneitan.

-Orduan buru utsezpiotzik barik?

-Ori be ez.Len baiño geiago ta obeto alkar maitatuko gozak.Baiña
urreragoko egin-bearrak aitzu barik.Edan larregia be,baten betiko.itzi
joguk biok.Orretan lotsagarriak izan gozak,Kepa,ez dok uste?

-Bai.Egia don,Zuriñe,baiña ez dok uste orain guretzako aldatzea ezi-
n dala? Zelan orain lan sakona egiten asiko gozan?

-Biok erabagi au artzen ba joguk eta benetan alkarrari lagundu... Nik
aintzat itxaropen osoa jaukat.Gaur goizean autortu nok eta ezergaitik be ez
jogut erabagi au neure bizitzan aldatuko.

-Autortu esan dozu,Zuriñe? Orretan be sinisten dozu?

-Bai.Gure bizitzan bide oker bat artu begunean,Erriaren aurrean aldatu
aldakuntzea agertu bearrean gagozela uste joat.Urteak dozak autortu barik
jagokela eta ez neukek geiagok autortu bearrik izaterik gura.Gure bizitza
gure ta ganorabakoa ikusirik,eta bide barri bat artzeko orduan,egokia dok
Erriaren eta anai kristifauen aurrean,erakutsi bat emotea.

Urrango domekan Kepa k be bere Eleizeagazko alkartzeko egin eban.Biak
alkartuta,bizikera barri bat artu eben.Eta zelako poztasuna,zelako alkar-maite-
tasun barria,garbia ta arduratua sortu zan euren biotzetan! Erriarentzat itxaro-
an bizi bat zirudien.

.....

BIDE ONEAN

Lanari sendo ta adoretzu oratu eutsoen.

Asteko,eres-ikasketa luze ta gogotsu bat egin eben,Eurak eresketarako
beretzko doia euken.Biak.Baiña norberaren izakereari lagundu egin bear.Egun-
ero joaten ziran uriburura eresa ikastera.Ikasle onak zirab eurak eta ira-
kasleak be bai.Laster artu eben eres-zaletasun sakonago bat eta aituak egin
ziran

Baiña ikasketakaz batera euren amesak be bete ebezan.

Al eben euskal-jai guztietara aurkezten ziran eta, biak batera, ederto abestu be, geroago ta obeto.

Zenbat txalo ta gorapeñ eurentzat! Zenbatetan "beste bat?" "Beste bat!" entzuten eben!

Baiña pozak eta kezak, alan bear be ta, gizarte onetan nastatuta etorri dira.

Uriburuko antzokian baten zan euskal-jaiak. Agintariai aurpegiarekin euren abestiak emon eutsen eta abestietatik erdiak baimen barik agertu ziran, Len abestien bidar baimenaz abestutako abestiak.

Gure Kepa berotu egin zan eta Zuriñe'ri esan eutsen:

-Baiña zergaitik laugarren abesti au debekatu joskuen ba? Ez jauken onetik! Txakur madarikatu orreik...!

-Benetan Kepa! Geroago ta gogorrago artzen juek gure Erria orreik. Eta gure egin geinkek ba?

-Ara! Nik debekauta egon arren, abestu egingo neuken! Eta esan Erriari-ri jauskuenela. Zer deritxan?

-Ori egiten ba'dok espetxea irabaziko dokela uste joat. Edozelan be ez jauskuen debekatua dokela. Apur bat burua makurtuez baiña ez ba'da be, Erri-lanetan egin bear joguk.

Eldu zan egun bildurgarria.

Kepa ta Zuriñe'rentzat beintzat.

Beste abestiek guztiak abestu ondoren, onelantxe berba egin eban Kepa'k:

"Jaun-andreak: Azkenengo abestia abestu bear dautzuegu. Abesti au debekatu jauskue, baiña, neure ustez, ezelako zio barik. Orregaitik abestu egingo dogu".

Entzuleen artean bildura ikara bizi bat sartu zan eta alkarrari begi-entzuleen autsoen, baita guztiak erriko agintariai eta ertzaiñari be. Oneik ez eraberruskerarik ez ekien eta,

Abestiaren izzak oneixek ziran:

"Euskaldunak gera. Euskaldunak gera.

Euskerea plazara atera,

Erria ^Aakatasun ohera,

Euskaldunak gera. Euskaldunak gera.

...

Erbestekoak etorri dira. Erbestekoak ^tetorri dira.

Gure gudariak il dira,

Lapurrak ager dira,

Erbestekoak etorri dira. Erbestekoak etorri dira.

...

Euskaldunak ⁱ tiroka. Euskaldunak ⁱ tiroka.

Erderaz biraoka,

Makillaz joka,

Euskaldunai tiroka. Euskaldunai tiroka.

...

Jagi euskaldunak. Jagi euskaldunak.

Kanpora madarikatuak,

Ila danak arerioak,

Jagi euskaldunak, Jagi euskaldunak.

...

Erriak turmoia lako txaloak jo zituan eta "barriro!" "barriro!" iñoan.

Eta barriro abestu eben. Baiña amitu baiño len, ertzaiñen txistua entzun

ango arifñeketak eta zarraparrea. Arrapau ebezanak, iñon diranak artu ebezan.

Ilari biak, barriz jakifña, espetxera.

Eta zer egin? Etxekoetatik irugarrena giltzaperatu euskuen.

Baiña, zori onez, ez zan luzarorako izan. Iru illebete egin ondoren, urten

eta, barriro, kanta ta dantza, Euskalerria ^{al}aituez eta zurtuez jarraitu

Kepa ta Zuriñe'ren arteko alkar-maitetasuna be bide onetik jöian.
 Len maitekeri utsa zan eta zoratuta lez ibilli ziran, alkar-atsegintzea baiño
 bik billatzen ez ebela. Baiña orain pozago eta gorago^o malla baten dagoan atse-
 in jabe ziran.
 Benetako alkar-maitasun onak, alkar zuzentzea eskatzen eutsoen. Ez zan izango
 on okerkeririk Gabiñe'k aztertu barik eta Garbiñe'ren buru-arinkeri batzuk
 izaten eben Kepa'ren berba sendoa. Eta orrelantxe, geroago ta gizonagoak
 kofagoak ziran biak.
 Gauza guztiak ondo be ez eutsen urteten. Eta abeslariak ain sentikorrak izaten
 eprez euren gogoak jausita aurkitzen ziran.
 Zer edoz zer garala uste izaten dogu, Garbiñe. Baiña ezetarako be ez dogu
 Azkenengo abes-aldian be zer? Abesteko ez almenik ez trebetasunik ez daukan
 nek irabazi euskun. Eta gu a baiño be txarragoak. Ezer be ez! Dana berhanbera
 beste lan bat artuko neuke!
 Bitetik bat olako egoeran aurkitzen zanean, besteak gogoa jasoten eutsan une
 eta urrengo egun baten, bareago egozanean, aztertze^o sakonago bat egiten eben.
 renengoetan egotaldi luzeak eta ugariak egiten ebezan alkarragaz, baiña ortik
 diran ondoren txarra^o be aztertu ebezan: denpora asko galdu, beste lagunakaz
 onik ez, norberekerian itsutu... Orregaitik, orretan be neurri bat artu eben
 aran aldatz-gora egin be'jaken be, lortu eben denpora gitxiago alkarragaz
 otz-beroak ziran biak, eta txikitatik alkarreganako maitetasuna erakusten
 ik, beti alkar laztantzen egon bearreko usotxuak ziran gazte-gaztetatik. Gai
 ztertutatu eben eta, abade onulari bat be bitarteko zala, zentzundun biurtu zi-
 rian zituen lagunak geroago ta ugariageak ziran. Eresa be irakasten eben,
 batez be gaztetxuak arduratzen ziran geien. Jolasetarako, urtekeretarako,
 eroatarako beti sartzen ziran eurak be. Erriak maite zituan.
 Aldi baten erlejiño gaietan kristiñauen alkartetik urrinduta izan ba'ziran
 asko urreratuta bizi dira: Sarritan agertzen dira eleizan irakurten, Jauna-
 andietan abesten, eleiz-batzarretan arteko izaten eta olakoetan. Abadea-
 rri ikusten dodaz, baiña ez iñoz autorlekuan, arako aldakunzea izan zan ez-
 urak zoriontsu ta bide onean ikusiaz, neu pozik nago. Euren maitetasuna eldue-
 altarera begira dagozede^o esan lei.

.....

Egun baten Kepa ta Zuriñe, baf^{nt}etxua euren ezpanetane ebela urreratu jatezan.

-Ama! Ezkondu egiten gara! Ondo deritxazu?

-Ara, ara! Gure usotxuak be abia egin-gura dagoz orduan.

-Bai, ama! Sas^oia ez da ba? Alkar ondo ezagutzen gara. Alkar ondo maite dogu.

Egun poza daukagu Erriaren eta Jainkoaren aurrean geure baietza emoteko.

-Tira ba! Asko poztuten naz! Eta noz edo non izango da ezkontza ori?

-Kepa'k eta biok apur bat pentzau doguz gauzak. Geure txadonean, eta, aberri-
be ba da ta, pazko-egunean ezkontzea gura geunke.

-Baiña egun orretan zuentzako mezarik izango da?

-Meza berezirik ez dogu bear. Gure ezkontzea Erriaren eta Jaungoikoaren
aurrean berbea emotea dala uste dogu. Eta ori egiteko ordurik eta mezarik egokie-
meza nag^uisia bera da.

-Baiña ez dozue uste egun aundi orreri daukan garrantzia kentzen dausazuela?

-Ez dogu uste ama! Gure ezkontzea mezearen zati txiki bat baiño ez da izango.
Egun irakurgaiaren ostean, abestitxu bategaz neure amesak agertuko dodaz; bardin
egun dau Kepa'k bigarrenaren ostean. Gero berbaldi-ostean geure baietza emon eta
Egun orretan beti lez geure lagunakaz ibilliko gara, eta beti lez geure etxean
barruko dogu.

-Eta gero ortik ibil-aldiren bat egin bear^oko dozue!

-Ez ama! Gu asko ibilliak gara eta orretarako erak gero be izango doguz.
Egun astera mendi baten, txabola baten igaroko dogu.

-Eta zer egingo dozue, biok bakarrik, basoan egun orreitan?

-Geure bizitza barrirako bideak aztertu, oiñez asko ibilli, eguzkia artu, abes-
barr^oak asmatu... eta batez be geure arteko bake uts-utsean egun batzuk igaro.
Egun daroagun bizikerea, jenteagaz asko ebilli bearrekoa da, eta olako bake-egunak
Egun zoragarriak izango dira.

...

Egun eta egin. Gauzak bear dan gertatu ondoren, esandako eran artu eban ezko^m
Egunako sakramentua. Egun poza izan zan gure sendian, naiz barruan egozanen gomu-
Egunak poz au illundu.

Joan ziran urrengo asterako basora be, eta astea igaro ondoren pozik etorri
Egun biak.

...elan, Kepa, bakardadean igaro dozuezan egun orreik?

...ozgarriak izan dira ama! Inorke egin ete dau ezkon-ibiltaldi pozparria-
...gounak be ederrak, eguzkia naikoa, ixiltasuna, bakea, eta gure abestiak txorie-
...metara.

...ibiltaldi luzeak egin dozuez?

...Ori be bat. Atxarterik-atxarte, landarik-landa, mendirik-mendi, artzain batzu-
...izketa batzuk eginda...

...eta abesti barri asko asmatu dozue?

...Bai. Ta ederrak gaiñera. Gure giroa oso ona izan da etorri ona izateko.

...Baten be ez zareen asarretu? Zuriñe kiriotsua da gero!

...Ez gara asarretu, ez. Inoz bero-alditxuren bat izan ba da be, laster adiski-
...gona. Ondo dakigu alkarren barria eta errez alkarrari parkatzen dautsagu. Zure
...naka atsegina ta pozgarria da.

...Ez zuen bizitza barrirako bideak be aztertu dozuez?

...Bai. Gure amesak pozgarriak izan jakuz eta guztiak bete gura geunkez: izango
...ama-alabai buruz, alkarragaz izango doguzan artu-emon guztiak, gure abeslari-
...aztertu dogu eta danerako bideak artu doguz. Erria ta benetako kristiñau-
...Ba kontuan artu doguz eta gertu gagoz barriro lanerako.

...Bai, semetxuok. Ba daukat nik zuekaz itxaropena!

....

...Batek pozgarri ori igaro ebensen, barriro lanera sartu ziran, eta betiko bidee-
...metara ta aurrera jarraitzen dabe.

.....

ONENAK

Mendian

~~Alardi baten~~
~~Alkarterez~~

noz

alai

igaro ebezan egun ~~noztan~~ ta ~~semin~~ oneik, gazte bien biotzak osoan eta benetan alkartu ebezan. Benetan biotz bat eta buru bat euken.

Ainbeste txalo entzunak arrotu barik, leun-leunak ziran.

Abeslaritzako egunik aundiena eurentzat, "Euskal-abestien Lehenengo Sariketa" irabazi eben eguna izan zan.

Ogei ta lau abeslari etorri ziran eta onein artetik amabi aukeratu ebezan eta euren artean Kepa ta Zuriñe. Gero amabietatik sei, eta seiren artean biak. Gero seiretatik iruren artean be aukeratuak izan ziran.

Azkenengo iru ^monei zein-geiagoa, egun gomutarri baten izan zan: Uriburuko abeslariak ospetsuenean, telebiziñoz zabaldua, millak eta millak entzule antzokian, millak telebiziño-bidez entzule ta ikusleak.

Artega egozan biak aurre-egunean, euren abesti zar eta barriai ekin eta abestiak.

Abeslari bakoitxak lau abesti abestu bearko ebazan eta txapeldun urtengo izango eban, eun milla pezetako saria izango eban.

Abeslariak gogotsuak izan arren, diruak be indar egiten eutsen.

Egia esan, euskal-abeslariak oso gitxitan izan dabe zer-edo-zer irabazteko arazirik.

~~Eta beste barri bat be laster emon bearko dot: Kepa ta Zuriñe laster ezkonduko anesetan egozan eta egun eder eta pozgarri ori ospatzeko izango ziran diru-emoteak euren kontura izatea gura eben.~~

Etorri zan ba Pazko-egun pozgarri ta ~~erabagarria~~ arduragarria. Biak alkarterez goizeko mezatara joan ziran eta Erriagaz Mai Santuan Alkartu ziran. Antxe Erriaren alde lan egiteko jarraitzeko erabagia barriztu eben.

Gero, orrelakoetarako oi dan lez, apain-apain jantzi ziran eta antzokia eraberratu ziran euren berebillean.

Aretoa bete-beterik egoan.

Asieran, iru bikoteak, sei abeslari guztiz, agertu ziran aurrean eta entzuleak burua makurtuaz agur egin eutsuenean, entzun eben txalo-trumoa ez zan makurtu izan.

89)

Gero, nortzuk lenengo abestu, zozketaz atera eben eta bigarren bikotea ziran gureak.

Ni ondo artega nengoan, baiña egun ona izan eben eta euren itu abestiak zoragarri abestu ebezan.

Entzuleak eurai txalorik geien jo eutsen eta ori ezaugarri ona zan.

Azkenez epailariak eurai emon eutsen lenengo saria. Beraikada gozo bat ukarrari emon eutsen eta euren arpegietan zoriona agiri zan.

Uau abestiak diskoetan, eres-mintzetan, agertu ziran eta telebiziñoak eta izpar-ingiak asko goratu ebezan.

Gure gazteak mundu guztian abeslari ezagunak egin ziran, eta eres-mintzak sak duaz diru apur bat be irabazten eben.

.....

V I

G E R O A G O
=====

PARKAPEN NAGUSIA

Urteak ba doaz eta zartzaroa eldu jaku.

Azkenengo ogei ta amar urte oneitan naikoa ikusiak gara.

Euskalerrria gogor artu eben eta gure ekintzailleak gogorkeriari gogor-
meunez erantzun eutsoen. Baiña zelako gogortasuna²/erantzun be!

Zenbat eriotza ikusi doguzan urte oneitan alde bietatik! Gazte eder eta
jilartsuak! Ezelako erru barik odolustu zituen erritarrak! Ogia irabazteko bes-
te bide asko be ez eta, ertzain izateko bidea artu eben gizon erabilliak! Eta
hoizbaita gorengo maillako agintariak be: ez jat sekula aiztuko agintarien na-
gai zan aren eriotzea! Bai, gure ekintzailleak egin eben! Orraiño eldu ziran!
te maixuki egin be orrelako lan bildurgarria!

Odola ta eriotzea ugari izan doguz azken urte oneitan.

Baiña gogorkeriak azpeltu dau jentea. Gizartean be aldakuntza garrantzitsu
bat izan da: Errege-barria jarri eben bere jarlekuan, eta beste giro bat sortu
zan! Ona? Txarra? Beste bat beintzat.

Errege-barriak, erbestetuentzat eta espetxeratuentzat parkapena emon
eben. Egun pozak areik! Ba neukan gure Alberto ta Koldo ikusteko guraria eta
az makala be!

Domeka arratsalde bat zan. Etxean nengoan itxaroten. Ba nekian biak egun
betan eta ordu beratan etxeratuko zirana eta orrelantxe izan zan.

Areik bai besarkada pozgarriak, ixillak, pozezko negarrari eutsi ezin-
da, alkarrari emon geuntsozanak!

Alberto, bere poza aundia izan arren, naikoa illun egoan. Geroari begi-
ta ez eukan uste larv onik oraindiño.

Pozik aundiena ta beteena artu ebana Garbiñe zan. A bai ikusten zala
zoriontsu benetan!

Koldo, lenengo egunetan, beste mundu baten ba'lego lez agiri zan, baiña
laster etxeratu zan gogoz eta senar-emazte biak naikoa zoriontsu bizi ziran.
Euren bizitzako illuntasun bakarra, Erriaren geroa argi ez ikustea zan.

....

Azkatasun-giro barriari jaramon egiñaz, laster alkartu ziran Erri-Ekintzai-
ngurua aztertzeke. Eta, Koldo'k gero esan eustanez, batzar ori luzea ta sa-
izan zan.

Lenengo Koldo'k berak egin ei eban berbaldi luze bat eta bere burutapenak
izan ei ziran:

"Lankideok: Azkatasuna lortzeko burruka gogor bat egin dogu eta gure areri-
ndotasuna ikusi dabe gudan, eta Erria geugaz daukagula konturatu dabe.

Erriku aundi bat urreratu jaku: eskintzen dauskuezan azkatasun-ondarra-
ez egotekoa. Orretarako ez zan izan gure burrukea. Azkatasun osoa billatu
gure Erriarentzat eta azkatasun osoa lortu arte ez dogu burruke itzi bear.

Erriku: Begiratu gure kondairara! Zer jazo jaku kondairan? Gure asabak azkatasun
izan ziran, baiña burrukarako buru-zagi bat bear eben eta euren jauna aukera-
eta jaun ori atzerriko errege-alabeagaz ezkontzea izan zan lenenko salduke-

geindifo azke giñan, Geure eskubideak geunkazan. Eskubide orrei lege zarren
zarri eutsoen lenengo, eta gero atzeritik artutako mezede batzuk zirala ziru-

enez etorri zan Karlos'tarren guda eta an, Maroto saitzaille zala, guztiak
galdu ziran. Atzeritarrak beti ekin dabe gure azkatasuna kentzen, eta gaur be
dabe.

Etorri zan ekintzaille zur eta adoretu bat: Sabin. Arek zurtu eban gure Erria,
bide zuzenean barrero jarri eban. Zenbat lan egin zan bere alditik eta ara-
onartua izan arte.

ada on bat zan gudaldiko Araudi ospetsua, baiña ez luzaroko. Atzeritarrak, au-
galdu ebena, gudaz irabazi eben eta gure Erria barrero azpiratua izan zan.

be zapaltzailleen maitik jausten diran ogi-birriñakaz asetuko ete gara?
gure dabenean kendu legikeezan azkatasun-ondar batzukaz baretu ete gara?

bidar ez. Dana edo ezer be ez! Nik neure eritxia agertu dautzuet eta zuena
gertu naukazu, baiña kontuz! Maltzurkeria agiri da!"

....

...-aldi naikoa luze onen ondoren ixil-aldi luze bat egin eben. Gaia sakona
... eben ebatzia garrantzi aundikoa.

... egozan guztiak Koldo'gaz batera, eta artu eban erantzun bat, giti~~xi~~ gorabe-
... zan zan:

... bide-kurutze baten aurkitzen da eta une onetan guk bakarrik ezin gein-
... rik artu. Gu bakarrik ez gara Erria.

... beste alderdi batzui be euren eritxia eskatu bear geinke. Gaur ba dira
... ko erretasun batzuk. Gero erabagia artu geinke".

... lantxe egin eben.

... kaldunak ez egozan burrukarako EEE'koen beste adoretzu. Geienen erantzuna
... zan: "Gura doguna ezin dogunean, al doguna egin dagigun!"

... Ma zer esan gura ete eban "Al dogun" orrek?

... zin ziran orretarako batzarrak eta alkar-izketak ugari. Eta azkenean, geienen
... batzerritarrakaz alkar-izketea astea erabagi eben.

... Ze er eskatu?

... daira-zaleak argitzaille zirala, araudi barri bat egiteko oiñarri oneixek
... zan:

... Manngo: Jaurkaritza eta gobernatzerako, zazpiak bat izango dira eta esku-
... itzak bere agintaria izango dau. Zazpi agintari oneik Batzar-Burua osotuko
... aldeko irurak Frantzia'ko agintaritzapean, Egoaldeko laurak, España'ko agi-
... Orretarako arau barri batzuk egingo dira.

... Agarren: Euskaldunak euren ondasunen jabe izango dira, eta Araudi barrien
... dan neurritz, goiko agintariai zerga bat ordainduko dautse.

... Agarren: Euskaldunik ez da joango Euskalerrri'tik kanpora gudaritzarako,
... menez ez ba'da, eta bere neimenez ba'da be Agintari Euskaldunen baimena
... dau.

... Agarren: Euskaldunak, Euskalerrrian naiz atzerrian, ez dabe sekula izango
... duna ez dan epailaririk ez epai-mairik. Eta iñoz euskaldunen bat^{ok} zigorrik
... ba'dau, Euskalerrira bialduko dabe, berto^M zigortua izateko.

... Begarren: Erri-bizitza bizkortzeko alegin guztiak egingo dira eta orretarako
... rik ez eragozpenik ez dau iñor ezarriko.

... Oiñarri oneik kontuan artuta, Araudi barri bat egingo da. Araudi orretan
... lakaz diran a egin bearrak argi ta garbi ezarriko dira, eta ortik kanpora
... dunak euren buruaren jabe izango dira eta agintari erakundea eurak eratuko

erri zan euskaldunik geienak agertu eben guraria.

gudakaz eta eriotzakaz, jentea naikotuta egoan eta zelakoa edo alakoa, bai^{ja}ea eben.

ibillera ta gorabera onein barria eldu zan Erre^{gl}-barriagana be. Onartuko ete erri^{de} au? Ipar-aldean burruka gitxiago be izan zan eta, an zer uste izango ete erri^{de}terriko agintariak?

egun gitxi barru egitekoa zan Errege-barriaren berbaldi ospetsu bat. Zer esan-
e ban?

Jentea, alde batetik pozik ba egoan be, urduri agiri zan. Itxaropena ta bil-
kartzan ziran.

Erri^{de} ziran gogor-zaleak be. Oneik erririk erri gaiztakeriak egiten ibilten

Erri^{de}z baiño ardura geiago geünkan Errege-barriaren berbaldia entzuteko.

ERREGE-BARRIAREN BERBALDIA.

Parkapen ^{nahuria} emon eta laster. Errege-barriak Euskalerriko goraberak zuzen-
 gurari bizia agertu eban. Bere berbañdi luze eta ganora aundi bako baten,
 esan eban:

"Ez daukagu aiztuta Euskalerriko arazoa eta ondo dakigu bere zusterak
 dirana. Baiña ori ta guzti be alkar-izketa sakon baterako gertu gagoz.
 Zer egin? Zer egin?"

Lagunduko al dauskue euskaldunak eurak eta Erri zintzo aretan diran inda-
 eginbide au zuzentzeko.

Nik, neure aldetik, baldintza au eskatuko neunke. oraingoz bakarra: Neure errei-
 ez dagiala zatitu. Baiña erreiñu onen barruan, Euskalerria ta antzeko
 ideak azkatasuna ta indarra lortzea gura neunke.

Bide luzea da ibilli bear doguna. Jazoriko gauza asko parkatu eta aiztu
 dira, baiña ibilliez egingo dogu bidea.

Nik, oiñarri lez, lenago, guda-inguruan egin zan Araudia ezarriko neuke. Or-
 euskaldunak onartua izan zan eta gaur be alkar-izketan asteko bide bat izan
 ke. Aldatu bear dana, aldatu, baiña, orduan lez gaur be, erreiñuaren batasuna
 barik".

.....

AN EZTABAIDEA

Berbaldi onek aldakuntza ta barrikuntza aundiak ekazan. Ez eukan lengoen
 aundirik, baiña zelan artu eben gure erritarrak?

Ez zan eztabaida makala sortu.

Erri zeak, burrukan naikoa eginda egoan eta, ontzat artu eban bide ori.

Ekintzailleak, ostera, zapaltzailleen bide barri bat eta Erria azkatasun ba-
 izteko era bat zala esaten eben.

Koldo'k eta Garbiñe'k eta euren lagunak ez eben onartu oiñarri ori eta
 eukan jarraitzeko gertu egozan.

Ni neu, egia esan, apur bat ekintzailleen aldetik nengoan. Zer egin euskuen
 be? Eta orain ez ete dauskue egingo beste orrenbeste? Barriro be ez ete
 atzipetuko? Baiña beste alde batetik Araudiaren bideari eusteari ondo ne-
 Antxe jokatu gendun guk geure denporan eta orduko giroa maite neban.

Egunerik egunera etozan aldakuntzak, eta lege barri zabalagoak. Barri poz-
 zirik ziran ain estu bizi izan gihanentzat: Eskoletan euskera irakasteko errea,
 irakurketa eta aldizkariak argitaratzeko arikatasuna, batzarrak egiteko erreztasuna,
 erretxetan benetako auzokundeak, agintasi jatorragoak berengo maillan...
 zuzeneko egoan.

Baiña ekin zuzenak oso urduri eta alkar-izketan sartu gura ezik.
 zelakoa edo alakoa, egin zan bakea, eta olako bakean bizi gara. Ez bildur
 arduraz arduraz barik, baiña len baiño obeto beintzat.
 amalgarrria benetan, arikatasun osoa ez lortzea. Gureak egin dau onezkero,
 zer izango da laster datorren gero baten?

.....

AMAIAREN GAISO-ALDIAK.

Gureak egin dauala esan dot. Eta alan da izan be.
 zartzarora eldu da: begiak lausotu, lepoa makurtu, aurpegia tximurtu, azurrak
 indarrak galdu... eta, gaur buruko miña, biar urdaila geldi, etzi unorea...
 Baiñera, zartzarora baiño ez ba' litz! Ilteko zer edo zerk etorri bear eta,
 ez nabil bat be ondo. Nire urdailak ez dau ezelako lakik egiten. Ba
 sagilleakaz eta iñon diran osakaiak artzen dodaz, baiña geroago ta makala-
 matan dot neure burua.

Zer egingo dogu ba! Betiko be ez gihan etorri eta!

Ez dogu gitxi ikusi gure munduan, eta orain besterako bidea be adorea
 ezaz artu bearko dogu. Aitarene etxera joateko ez dogu bildurtu bearko! Be-
 gaki guk baiño obeto gutzat onena zer dan.

Neure gaiso-aldietan Amaia da nire jagole ta poz emoille. Aingerutxu
 urudi, zartzarorako Jaunak emon daustan aingerutxu bat. Oraindiño gaztea
 da ta, ez dau izaten loa galtzeko bildurrik eta nekatu be ez da egiten

.....

MARTZELIÑA'REN IKUSTALDIA.

Neure makal-aldi onen barria jakin dau auzoko Martzeliña'k eta ikustal-
 bat egitera etorri jat.

-Arratsaldeon, Mikela! Zelan zagoz?

-Ondo ez, Martzeliña! Baiña zer egingo dogu ba? Betikoak be ez gara ta...

-Baiña oraindiño urte batzutan bizi bearko dozu!

-Ez dot uste, Martzeliña. Emen nire urdaillean zer edo zer ba^m dago. Ez ezelako lanik egiten. Osakaiak alperrekoak dira niretzat.

-Zuek neke asko eroanak be ba zaree ta. Ba dakizu ba. Orreik zartzaroan egiten dira.

-Bai, Martzeliña! Baiña dana igaro dogu eta ga^{ur} poztu egiten naz.

-Gura izan dozuena lortu dpzue ta poztutekoa da izan be!

-Ez dakit ba, Martzeliña! Len baiño giro ohea ba dago, baiña gerorako

uzak argi ikusten dozuz? Errege-barria zuzena ta ona izango dala uste dozu? dakit ba...!

-Barriro be itxaron egin bear, Mikela! Baiña nik ba daukat itzaropena! Ikusten dozu zelako lorak agertu diran gure inguruan? Iñoiz ez dogu izan olako orrik. Guda-aurrea bera be ez zan gaurkoa lakoa!

-Ni barriro atzipetu ete gaituen nago. Erregeak beti tiratuko dau aran-
a, bain arte lez. Eta gure eskualdeetan dagozan zazpi Jauntxuak alkartuta be,
dabe eukiko bear dan beste indar. Beti lez, ipar-eldetik eta egoaldetik izan-
p dira tirakadak, eta geroago ta geiago. Eta azkenean lengora atzera! Ez dozu
te? Gaiñera geu be ez gara alkarragaz bakean biziten zaleak. Orretan barru-
barruko gaisoa daukagu.

.....

ERREGEN-AURREA.

Alkar-izketa luzea izan neban Martzeliñagaz, eta apur bat nekatu egin nintzen. Gai onek gure biotzari asko eragiten dautso ta...

Gau aretan nire biotzak uts-aldi batzuk egin zituan eta nire etxeakoak bertan geratuko nintzala uste eben

Antxe alkartu ziran guztiak: Alberto, Sabin, eta Amaia, Koldo ta Garbiñe, Kape ta Zuriñe.

Baiña, zala izan edo, bizirik urten nintzan urrengo eguna ondo poza izan nintzen guztiontzat.

... eretan, bertan-bera nengoala, nire sendikoak geiago bizirik ni ikusteko
... larregirik ez euken artean, ames luze ta bildurgarri bat izan neban. Neure
... amaitu baiño len, esan egin bear dot. Antxiñakoak ames onei garrantzi aun-
... ei eutsen, eta nire amesak be ba daukoz bere zusterak.
Euskalerrria, mota guztietako lora ederrez loratuta ikusi neban. Zoragarri

Baiña itxas-ertzean etxe bildurgarri batzuk agiri ziran: guztiz aundiak,
luzeak zituen eta zulo orreitatik ke baltzak urteten ziran. Inguruko lurral-
... ke illun orrek estaltzen zituan.

Etxe orrein alboetatik itxasora urtenbide aundiak eukezan eta urtenbide
... ziran tokietan ixasoko ura bor-bor irakiten egoan eta inguru guzti-
... peldu egin ziran.

Ango arrain guztiak, ura epelegia zalako, il ziran eta ur-gaiñean zabelez gō-
... ziran.

Egoera onek luzaro iraun eban, baiña bat-batean daubada ikaragarri bat
neban eta Euskalerrriko lau aldeetatik erri-barrurantz arriñeketa ikaraga-
... uriola antzeko bat etorri zan eta Gure Erri polita kizkalduta itxi eban.
... guztiak il ziran eta mendi baten gaiñean, ez dakit nor ipiñita, arri-lo-
... bat idazki luze bat idatzita eukana. Onelantxe asten zan idazkia: "Ba zan
... zar, zintzo eta leial bat, baiña egun baten..." Ez neban geiago irakurri.
... gin nintzan.

Gaur Amaia gaz alkar-izketa au izan dot:

-Zu, Amaia, ames bildurgarri bat izan dot!

-Orrek ez dauka garrantzirik ama. Olakoak sarri jazoten jakez zuk izan do-
... gaiso-aldi aundiak dituenai. Sukarrak egin-erazoten ei ditu ames orreik.

-Entzun egizu, Amaia, nire amesetea. Zuk, bear ba da, bere esangurea be jakingo
... ez dautset indar aundirik emoten amesetai, baiña ain sakon sartu jat! Ezin
... baten bateri esan barik.

Eta, astiro-astiro, al nebanik bizien, edestu neutsan dana.

-Ai, ama! Ameseta orretan ainbat gauza nastatu dozuz eta gure Erriak dau-
... aur aundi bat agertu dozu.

-Zer da ba, Amaia?

-Ez dozu iñoz entzun or itxas-aldian kizi-indarra lortzeko ola batzuk
... diarduela?

Ad. Iñoz zer edo zer entzun dot.

Dozu ikusi iñoz b gure ~~er~~ gazte askoren bular-gaiñean iru makobillezko bat,orrein aurka zabalkundea egiteko?

Bai, Amaia. Oraintxe gogoratzen dot. Eta zergaitik egiten ditue ba olako emen gure Errian?

Esan bear ei dabe, eta langillak ugari. Gaiñera bertan indar asko bear dan ezkerro urriñetik ekarri bearrik ez ei dago.

Lau bertan, Euskalerrian?

Uk ipiñi ezkerro, gero zabaldu be egin leikez eta, guk bear dpgun baiño geiago izango leiteke.

Amesak beste zuster bat ete daukan nago. Beste era batera ezestu ezin irria zapaltzeko ta apurtzeko bidea ez da izango ori?

Bai be ori sarri etorri jat burutara. Eta beste batzui be bai antza, ola zabaldu zabalkunde aundia egiten da ta. Laurak ez dirala egingo be ba diñoe

Arrisku aundia dauke i ola orreik?

Batetik zuk amesetan ikusi dozun lerpenaren arriskua. Egilleak ezetz jentea ez dago uste onez. Baiña arrisku aundiagoa ei da kutsadureare-
tzen da zuk ikusi dozun kea agertzean eta itxasoko ura ainbeste bero-
Euskalerrria loraz beterik ikustean ez dakit ba nik zer ikusi gura

Zarra gitxik poztuten dau Amaia. Aspaldion ikusten diran ^Askatasun txi-
no dira, batez be eskoletan euskera irakastea, agintarien aute^Akundea,
erretasuna ta olakoak.

Esan dozu, ama, Zarra gitxik poztuten dauala. Zer edo zer ba da, baiña
beterik ikustea lartxu dala ez dozu uste?

Bai. Orixe bai. Amesetak beti zor^Aak!

Emen amaitu bearko dot edesti ~~abur~~ au. Jarraitu dagiala munduan gure
Bilatuz dagiala bere bidea munduko beste erri guztien artean. Eutsi
antxiñatik artuta daukan sinismenari. Eta euskaldunontzat Aitarek etxe-
tzeko mailadi zuria izen daitela Euskalerrri bateatua.

14-VI-75